Euskadiko Gazteriaren Kontseilua
Consejo de la Juventud de Euskadi

Euskadiko Gazteriaren Kontseilua

2021eko Plangintza



Ramiro de Maeztu, 15 behea
Vitoria-Gasteiz

www.egk.eus
Autonomia, 44 behea
Bilbao

Andia, 11 nagusia
Donostia

SARRERA 6

1. ETXEBIZITZA 7

1.1 Emantzipa...Zer? lantaldea 8
1.2 Gazteen etxebizitza egoera ezagutzen txostenaren zabalpena 10
1.3 Emantzipazio neurrien mapa interaktiboa 12
1.4 Zutabeak Arrakalatzen 14
1.5 Zaintzen Plaza 16
1.6 Harremanak eragileekin 18
1.7 Egunerokoa 19

2. ENPLEGUA 22

2.1 Emantzipa...Zer? lantaldea 22
2.2 Lan istripuen protokoloa 25
2.3 Enplegu arloko data esanguratsuen egutegia 26
2.4 Zaintzen Plaza 28
2.5 Kalitatezko Enplegua hiruburua 30
2.6 "Ikasketak bukatu ostean zer?" formazioak 32
2.7 Ikertzaile gazteak 34
2.8 Enplegu lan arloan lan egiten duten elkarteekin harremana 36
2.9 Eguneroko lana 37

3. HEZKUNTZA 40

3.1 HEZKUNTZA EZ-FORMALA 41
3.1.1 Hezkuntza ez formaleko taldeekin koordinazioa 41
3.1.2 Astialdiko Ikastaroen kanpaina 43
3.1.3 Udako kanpaina 44
3.1.4 Hezkuntza ez formaleko lantaldea 45
3.1.5 Hezkidetzaren lanketa 47
3.1.6 Ikus Gaitezen 49
3.2 HEZKUNTZA FORMALA 51
3.2.1 Hezkuntza Foroa 52
3.2.2 "Gazteak eta garraioa" egoerarenanalisia 54
3.2.3 Hezkuntza eragileak 56
3.2.4 Eskola Kontseilua 56

3.3. HEZKUNTZA: OROKORRA 57
3.3.1 Hezkuntzako data garrantzitsuak 57
3.3.2 Administrazioekin koordinatu 59
3.3.3 Egunerokotasuna 59
4.PARTAIDETZA 60
4.1 Aholkularitza 61
4.2 EGKren 35. urteurrena 63
4.3 Partaidetza Plana 64
4.4 EGK: Sarea handitzen 66
4.5 Lantaldeen koordinazioa 67
4.6 Material eta gelen lagapen zerbitzua eta kanpaina 68
4.7 Euskadiko Gazteok Lankidetzan 70
4.8 Gazteriaren Foru Transpirenaikoa 71
4.9 Ikus Gaitezen 73
4.10 Gizarte Aldaketarako Herritartasuna 75
4.11 Egunerokoa 76
5. BAKEA ETA BIZIKIDETZA 77
5.1 Etikasi 78
5.2 Ikus Gaitezen 80
5.3 Bake eta bizikidetza lantaldea 82
5.4 Zurrumurruen Aurkako Sarearekin elkarlana 83
5.5 Nazioarteko egunak 85
5.6 Inor Atzean Utzi Gabe lantaldea 86
5.7 Eragileekin elkarlana 88
5.8 Egunerokoa 89
6.BERDINTASUNA 91
6.1. GAUR8 LANTALDEA 92
6.2. EGK-ko II. Berdintasun Plana 93
6.3.Gune Anitza 95
6.4. Berdintasun Protokoloak 97
6.5. Zaintzen Plaza 99
6.6. Beijing+25 101
6.7 Zutabeak Arrakalatzen 102
6.8. Hezkidetzaren lanketa 104

6.9. Data esanguratsuak 106
6.10. Harremana feminismoko eragileekin 108
6.11 Egunerokoa 110
7. KOMUNIKAZIOA 111
7.1 Diseinatzaile gazteen lan-poltsa 112
7.2 Piztu! buletin digitala 114
7.3 Sare sozialak kudeatu 116
7.4 www.egk.eus webgunearen mantenua 119
7.5 www.egk.eus webgunea kudeatu 120
7.6 Irudiak berritu 122
7.7 Lan-arloka sareak sortu 124
7.8 Gizarte aldaketarako herritartasuna 126
7.9 Bilbo YouTuber aukeraketa 127
7.10Barne komunikazioa 128
7.11 EGK 35. urteurrena 130
7.12 Komunikabideekin harremana 131
7.13 Egunerokoa 133
7.14 Beste lan-arloekin harremana 134
8.PRESIDENTZIA 137
8.1 Batzorde Iraunkorra 137
8.2 Lantalde teknikoaren koordinazioa 138
8.3 Batzorde Ekonomikoa 140
8.4 EGK-ko Batzar Orokorra 141
8.5 Elkarlana eta ordezkaritza 143
8.5.1 Eusko Jaurlaritza 143
8.5.2 Aldundiak 144
8.5.3 Eusko Legebiltzarra 145
8.5.4 Batzar Nagusiak 147
8.5.5 Udalak 148
8.5.6 Beste Erakundeak 149
8.5.6 Komunikabideak eta irudi publikoa 150
8.6 Gazteria Legea 151
8.7 Gazte Agora 152
8.8 Gobernu irekia (OGP) 153
8.9 EGKren 35. urteurrena 154

SARRERA

Jarraian, Euskadiko Gazteriaren Kontseiluak (EGK) 2021 urtean aurrera eramango dituen proiektuak aurkezten dira. Horiek, Lantalde Teknikoaren eta Batzorde Iraunkorraren elkarlanaren bitartez diseinatu dira eta, aldi berean, lan-arlo bakoitzaren lantaldeak eta eragile ezberdinek eginiko ekarpenekin osatu da. Era honetara, proiektuak ikuspegi zabalagoa dute eta gazte, (gazte)-elkarte eta administrazioen artean zubi-lana egiteko helburuari errazago erantzungo zaio. Izan ere, ekimenen eta proiektu desberdinen parte diren eragileei ahotsa emanez lanketa oro aberatsagoa da.

Aurreko urteetan bezala, hainbat erakunde publikorekin akordioak eta lankidetza hitzarmenak sinatuko dira diru-iturriak bermatze aldera. 2021an honakoak izan ziren aipatutako baldintzak bideratu zituzten erakunde publikoak: Eusko Jaurlaritzako Gazteria Zuzendaritza eta Biktimak eta Giza Eskubideen Zuzendaritza; Emakunde; Bizkaiko Foru Aldundia; Gipuzkoako Foru Aldundia; Bilboko Udala; Gasteizko Udala eta Donostiako Udala.

2021. urteari begira, EGKren asmo nagusietako bat COVID19ak ekarritako pandemia egoerak gazteen artean utzitako ondorioen analisia egitea izango da. Honi jarraiki, ondorio eta proposamenak bide desberdinen bitartez administrazioari helaraztea lortu nahi da. Horregatik, eta lan arlo bakoitzak dituen ildoak zein proiektuak baliatuz zein espazio desberdinetan hausnartzen jarraituz, momentuko egoera berri hau aintzat hartuko da, baita momentuko testuingurura egokitzeko bide berriak jorratzeko beharra ere. Horretarako, tresna berrien garapena ere garrantzitsua izango da, nagusiki egoera berezian dauden kolektiboetako kideei bideratu eta egokitu behar izango delarik lana.

Bestetik, aurreko urtean landutako eta adostutako **II. Berdintasun Plana**ren ibilbidea hasiko da 2021. urtearekin batera praktikan jartzen. Horrekin, berdintasuna zeharkako balore izateaz gain, identitate eta gorputz anitzen hausnarketa eta beharren lanketan jarraituko da. Horretarako, lanaren barne mailako etengabeko formazioa ezinbesteko izango delarik.

Gainera, aurretik ere landutako parte hartzeko modu berriei espazio gehiago eman nahi zaie, horretarako jarduterako orduan bide berriak zabalduz: bai proiektuen formatuan eta baita forman ere. Betiere momentuko testuingurua kontuan hartuz.

EGKren ekintzek euskal gazteen artean eragina izan dezaten lanean jarraituko da. **Gazteria Legea**ren atarian aurkitzen garen honetan gainera, lan arloetako jarduna norabide horren mesedetan jarriko da, gazteen esparruan identifikatzen diren behar eta premien gaineko identifikazio eta proposamen lana eginez. Legearekiko ekarpenak eta jarraipena lantzen ibiliko da urte honetan ere EGK, bere lan ildo desberdinetako ikuspegiak bertan islatzen eta txertatzen saiatuz.

1. ETXEBIZITZA

Euskal gazteriaren artean emantzipazioa lehentasun handia duen gaia da. Emantzipazio prozesua lan merkatuaren konfigurazio prekarizatuarekin hertsiki loturik doa, horregatik, 2019ra arte biak lan-arlo bakarraren barnean zeuden. Baina geroz eta gehiago dira bizitza proiektu propioa garatzeko gazteriak aurkitzen dituen zailtasunak eta horren baitan emantzipazio prozesuak berebiziko pisua du. Horregatik, EGK-k 2019an lan-arlo propioa izateko apustua egin zuen eta etxebizitza eta enplegua lan-arlo bereiziak izan ziren lehen urtea izan zen.

Euskal gazteriaren emantzipazioa mahai gainean jarri eta berau aztertu eta hobetzeko proposamenak egiteko helburuarekin lan egin zuen aurreko urtean etxebizitza lan arloak. Aurten ere, bide berdinetik gazteen kolektiboan eta administrazioaren artean zubi lana egitea izango da erronka.

1.1 Emantzipa...Zer? lantaldea

Gazteen egoera inoiz ez da bereziki ona izan etxebizitza, enplegua eta emantzipazioari dagokionez, eta ez dira gutxi izan eskubide honen alde egin izan diren egitasmoak. Haatik, 2008ko krisi ekonomikoa hasi zenetik, etxebizitza ez lortzea edo galtzea eta enpleguaren prekaritatearen arazoa orokortu egin dira. Ondorioz, gazteek emantzipatzeko dituzten arazoek protagonismoa galdu dute, arazo orokorrago batean nahasiz. Luze da EGKtik egoera horiek salatzen direla, ez bakarrik azken urteotako egoera ekonomikoaren ondorioz, baizik eta lehenagotik pairatutako baldintzengatik ere. 2020an gainera, COVID-19ak sortutako krisiak gogor kolpatu du gazteria eta egoera hau laztu besterik ez da egin.

Hori dela-eta, garrantzitsua da gaztez osaturiko etxebizitza eta enplegu lantalde indartsu bat sortzea, gazte hauen nahiak eta beharrak politika publikoetara helarazteko. Azken urteetan diskurtso sakon eta indartsua landu izan da, eta zenbait kargu politikoren aurrean garrantzizko eragile bilakatzea lortu da. Nahiz eta enplegu eta etxebizitza lan-arloak banatu, Emantzipa...zer? lantaldea enplegu eta etxebizitza gaiak era bateratuan jorratzeko baliatuko da. Aurten, lantaldea indartzen jarraitzeko asmoarekin gazte kolektibo zein norbanako berriengana hurbiltzeko saiakera egingo da, lantzeko gai desberdinak planteatuz.

Lantalde hau enplegu lan-arloarekin batera koordinatuko da.

Helburuak

HELBURU OROKORRA:

Gazteriaren perspektiba batetik honi loturiko enplegu eta etxebizitza ekimenak eta neurriak aztertzea, administrazioari hausnartutako ondorioak helarazi ahal izateko eta horrela, politika publikoetan eragiteko.

HELBURU ZEHATZAK:

- Gazteak eta gazte-elkarteak enplegu eta etxebizitza arloaren gainean batuko dituen eztabaidagune bat ezartzea.
- Gazteria eskubide osoko subjektu bezala aintzakotzat hartzea, defendatzea eta aukera eta hobekuntza-proposamenak sortzea.
- Eztabaidagunean sortutako ekimenei jarraipena ematea gazte berriek parte-hartzea lortuz eta horren funtzionamendua kudeatzea eta bultzatzea.

Garapena

EKINTZAK:

Lantaldearen koordinazioa eta proposamenei jarraipena eman.

Administrazioek garatutako enplegu eta etxebizitza politika publikoen kontrastea egin eta hobekuntza proposamenak sortu.

Gazte bat etxe-kaleratzen duten kasuetarako protokolo baten beharrari buruzko hausnarketa bideratu.

Lantaldearen bileren zabalpena egin gazte berriek parte hartu dezaten.

Lan arloko nazioarteko egunak landu.

Urtearen ebaluazioa eta 2022ko plangintzaren onespena egin.

KRONOGRAMA:

URT	OTS	MAR	APIR	MAI	EKA	UZT	ABU	IRA	URR	AZA	ABE

Ebaluazioa

- Lantaldearen funtzionamendua eta gazteen partaidetza: deialdien arrakasta, hausnarketen sakontasuna, kideen proaktibotasuna eta proposatutako proiektuak.
- Egindako hausnarketen sakontasuna eta landutako ekimenen bideratzea.
- Administrazio eta kargu politikoen jarrera gazteen proposamen eta hausnarketen aurrean: eskatutako bileren onarpena, eskaerak entzuten dituzten, hauek politika publikoetan barneratzen dituzten, etab.

1.2 Gazteen etxebizitza egoera ezagutzen txostenaren zabalpena

2020an galdetegi bat egin zen gazteek emantzipazio alorreko neurri eta programen eta hauek kudeatzen dituzten administrazioei buruz duten iritzia jasotzeko. Lan horren emaitza da Gazteen etxebizitza egoera ezagutzen 2020 txostena. Gazteen erantzunetatik ateratako ondorioak nabarmenak dira, gazteek modu argian adierazi zuten etxebizitza eta emantzipazioari dagokionez egoera ez dela ez nahi, ezta merezi dutena. EGKtik gazteen iritzia jaso eta zubi-lana eginez, bildutako informazio guzti hau eta ateratako gako desberdinak administrazioari helarazteko bidea hartuko da. Garrantzitsua baita administrazioak neurri eta erabaki zehatzak hartzea egoera hobetzeko.

Aurtengo asmoa, 2020ko amaieran ekindakoari segida emanez, txostenean jasotzen diren erantzunak administrazioari aurkezten jarraitzea izango da.

Helburuak

<u>HELBURU OROKORRA:</u>
Gazteen etxebizitza egoera ezagutzen txostenaren zabalpena egitea.

HELBURU ZEHATZAK:

- Administrazioa eta gazteen arteko zubi-lana egitea, administrazioari gazteen proposamen eta ekarpenak helaraziz.
- Zehazki, Alokabide eta Etxebide bezalako entitateekin harremanetan jartzea gazteek adierazi duten eurenganako ezagutza falta helarazteko eta hau aldatzeko elkarrekintzak planteatzeko.
- Gazteen artean txostenaren zabalpena egitea, EGKren aldarriak ahalik eta modu zabalenean hedatzeko.

Garapena

EKINTZAK:

Txostena aurkezteko subjektu interesatuak identifikatu.

Txostena publikatzeko eta honen zabalpenerako plana prestatu.

Zabalpen plana gauzatu.

Balorazioa gauzatu.

KRONOGRAMA:

URT	OTS	MAR	APIR	MAI	EKA	UZT	ABU	IRA	URR	AZA	ABE

Ebaluazioa

- Txostenaren aurkezpenaren zabalpena.

- Aurkeztutako subjektuen erantzuna.
- Aurrera begira sortutako aukerak eta elkarrekintzak.

1.3 Emantzipazio neurrien mapa interaktiboa



Administrazioak gazteen emantzipaziorako bideratutako dirulaguntza edota neurri desberdinak ditu. Batzuetan, administrazio maila desberdinak eskaintzen dituzten neurriak dira hauek. Baina 2020ko "*Gazteen Etxebizitza Egoera Ezagutzen*" txostenean agerian geratu zen bezala, askotan haien udalak eta administrazioak eskaintzen dituen aukerei buruz informazio gutxi dute, edota ez dakite nora jo neurri hauen inguruko informazioa jasotzeko.

EGK-k gazteek administrazioak emantzipatzeko eskaintzen dituen aukerak ezagutzeko mapa interaktibo bat sortu zuen 2019an. Honela, gazteek bizi diren udalerria klikatuz zein aukera dituen modu erraz baten ikusteko aukera izango dute. Halaber, administrazio maila desberdinek aukera desberdinak eskaintzen baditu eta hauen arteko bateragarritasuna posible den edo ez ageriko da.

Beraz, emantzipazio neurrien mapa interaktiboari jarraipena ematea izango da aurtengo helburua. Honela, berau osotu eta zabalpena egiteari ekingo zaio.

Helburuak

HELBURU OROKORRA:

Sortutako mapa interaktiboa osotzen jarraitzea eta berau publiko egitea.

HELBURU ZEHATZAK:

- Gazteek administrazioak hauentzat eskaintzen dituen emantzipatzeko neurriak eta dirulaguntzak ezagutzea eta berauek ezagutaraztea.
- Euskal gazteriaren eta administrazioaren arteko zubi lana egitea.
- Administrazio eta gazteen artean dagoen harresiari irtenbide ematea.
- Administrazioaren neurri eta programak gazteen artean ezagutzera ematea.
- Tokiko administrazioekin harremana sendotzea.

Garapena

EKINTZAK:

Mankomunitateekin eta beste administrazio batzuekin harremanetan jarri.

Administrazio desberdinen neurrien osaketarekin jarraitu.

Mapa publiko egiteko zabalpen plana prestatu.

Zabalpen plana gauzatu.

Balorazioa gauzatu.

KRONOGRAMA:



Ebaluazioa

- Txostenaren aurkezpenaren zabalpena.
- Aurkeztutako subjektuen erantzuna.
- Aurrera begira sortutako aukerak.

1.4 Zutabeak Arrakalatzen

EGKn genero ikuspegia zeharkako balorea da eta gainontzeko lan-arloetan egin den moduan, etxebizitza arloan ere genero perspektiba txertatzea ezinbestekotzat jo da, beraz bide honi ekin zitzaion 2020an Zutabeak Arrakalatzen proiektuarekin. Alde batetik, etxebizitzarako sarbidean gizon eta emakume gazteen arteko nolakotasuna aztertu nahi izan zen, eta generoaren eraikuntzak espazioan duen eraginari buruz hausnartu. Bestetik, etxebizitzen tipologia eta eredu berrien inguruan ere ikertu nahi izan zen. Izan ere, gaur egun gailentzen den etxebizitza eskaintzaren ereduek familia eredu tradizionalari erantzuten diote, eta aldiz, ez da hau jendartean gailentzen den bizikidetza unitatea; are gutxiago, gazteen artean.

2020an egin zen lanketaren ekitaldi nagusia Urriaren 31n antolaturiko Zutabeak Arrakalatzen mahai ingurua izan zen; bertan argi ikusi zen gazteen artean gai honek sortzen duen interesa. Asko dira eredu tradizionaletik aldenduz beste era bateko elkarbizitza eredu batzuk jarraitu nahi lituzketen gazteak, baina ez da beti erraza. 2021ean zehar, gai hauen inguruan hausnartuz eta hauek landuz, Zutabeak Arrakalatzen proiektuaren bidez tresnak eman nahi zaizkie gazteei, etxebizitzari genero ikuspegitik begiratzeko, beste era bateko bizikidetza alternatibetara moldatu daitezkeen etxebizitzak identifikatzeko, eta etxebizitzak irizpide hauen arabera baloratzeko.

Helburuak

HELBURU OROKORRA:

Zutabeak arrakalatzenen proiektuari jarraipena ematea eta etxebizitza eredu berrien egungo legeriari ekarpenak egitea.

HELBURU ZEHATZAK:

- Zutabeak Arrakalatzen proiektuaren 2020ko paneltxoak zabaltzea.
- Identifikazio bat sortzea beste bizikidetza eredu batzuk landu nahi dituzten gazteekin.
- Eredu berriak genero ikuspegitik lantzen jarraitzea.
- EAE-ko testuinguruan etxebizitza eta bizikidetza alternatibak planteatu nahi dituzten gazteei irizpide eta tresnak lantzeko espazio bat sortzea.
- Administrazio eta gazteriaren arteko zubi lana egitea.
- EGKren diskurtsoa aberastea.
- Berdintasuna zeharkako balore gisa praktikara eramatea.

Garapena

EKINTZAK:

Edukiaren lanketa eta ekitaldien diseinua egin EGK-ko teknikarien arteko koordinazio bileren bitartez.

Ekitaldiaren antolaketa tekniko eta diseinua prestatu.

Ekitaldiaren deialdiaren eta Zutabeak Arrakalatzen 2020ren zabalpena.

Ekitaldia/k gauzatu.

Balorazioa gauzatu.

KRONOGRAMA:



Ebaluazioa

- Gaiaren lanketa kualitatiboa.
- Gai honen aurrean gazteen erantzuna eta jarraipena. Bai ekitaldiei dagokienez, kuantitatiboki eta baita ere, kualitatiboki (jarrera, interesa etab.).
- EGKren diskurtsoa eratzeko lanketaren nolakotasuna.

1.5 Zaintzen Plaza

Pertsonek zaintzak jasotzeko beharra dugu gure bizitza guztian zehar, izaki zaurgarri eta elkarren mendekoak garelako. Zaintzarik gabe bizitzari eustea ezinezkoa da. Historikoki emakumeak izan dira zaintza lanak eta lan erreproduktiboak bere gain hartu dituztenak. Lan ikusezin bat izan da, gutxi baloratua, baina oso zentrala. COVID-19aren krisiak agerian utzi ditu eredu honen gabeziak eta zaintzen garrantzia, eta beraz, jendarte bezala, kolektiboki, zaintzen erantzukizun soziala hartzeko dugun beharra.

Zaintzez hitz egitean gutako bakoitzaren bizitzak bere egunerokotasunean funtzionatzea ahalbidetzen duten ezinbesteko ekintza guztiez ari gara, eguneroko bizitzaren berreraikitze prozesuaz, ongizate fisiko eta emozionala sostengatzen dituena. COVID-19aren krisian guztia geratu zenean geratu ezin izan ziren lan guzti horietaz.

'Zaintzen Plaza' izeneko proiektu honekin, gai hau EGKra ekarri nahi da. Plaza bat sortu nahi da, espazio bezala. Elkarren artean hitz egiteko eta ikasteko gune moduan.

Horretarako, publiko nagusia **Ematzipa...zer ?** lantaldea eta **Gaur8** lantaldea izango dira. Tresnak emango dira diskurtsoak sortzeko, talde izaera garatzeko eta zaintzen inguruko ezagutza handitzeko. Horrez gain, plaza, beste norbanako eta eragileei ere zuzendurik egongo da, puntualki lantzen diren hitzaldietan parte hartzeko edota konstanteki diskurtsoak garatzen laguntzeko ere bai.

Proiektu hau, beraz, Berdintasun eta Enplegu lan arloekin batera koordinatuko da.

Helburuak

HELBURU OROKORRA:

Gazteriaren ikuspuntutik zaintza zentroan jartzen duten ereduak lantzea alor desberdinetatik.

HELBURU ZEHATZAK:

- Gazteriari zaintza lanak bizitza posible egiten duten ekintza multzo zabal eta ezinbesteko bat bezala ikusaraztea.
- Zaintza lanei duten garrantzia eta duintasuna ematea eta erantzukizun soziala zein norbanakoena sustatzea gazteen artean.
- Gazteen artean hausnarketa eta elkar trukatzeko espazio bat sortzea.
- Zaintza lanak gazteekin alor desberdinetatik lantzea, bizitzaren esfera guztietan eragina dutela ikusarazteko.
- Gazte eragile desberdinek zaintzen inguruan duten diskurtsoez baliatuz EGKren diskurtso propioa sortu.

Garapena

EKINTZAK:

Zaintza lanak aztertu eta landu EAEko testuingurua kontuan izanik

Zaintzak lantzen dituzten eragileak edota gazteak identifikatu eta hauekin harremanetan jarri.

Plazaren dinamizazioa aurrera eraman: hitzaldiak prestatu, dinamikak kudeatu...

Plazaren dinamikaren ondorioak landu.

KRONOGRAMA:

URT	OTS	MAR	APIR	MAI	EKA	UZT	ABU	IRA	URR	AZA	ABE

Ebaluazioa

- Ateratzen diren diskurtsoen sakontasuna eta gaiaren lanketa kualitatiboa.
- Gai honen aurrean gazteen erantzuna. Plazari dagokionez, kuantitatiboki eta baita ere, kualitatiboki (jarrera, interesa etab.)
- Zaintzen plazarekin lotuta lantzen diren gaien aniztasuna.
- Plazan hausnartutakoak zenbateko irisgarritasuna duen gazteengan eta beste eragile batzuengan.

1.6 Harremanak eragileekin

Emantzipazio alorrean eragile askok eta anitzek dute zer esana. EGKrentzat funtsezkoa da eragile guzti hauekin harremanetan egotea. Alde batetik, gazteen kasuan, hauen beharrak lehen eskutik ezagutzeko. Bestetik, eragile publikoekin, gazteen iritzia transmititzeko eta erabaki publikoetan ahalik eta gehien eragiteko.

Helburuak

HELBURU OROKORRA:

EGKren eta etxebizitza arloan lan egiten duten elkarteen, instituzioen, administrazioen eta arduradunen artean harremana sortzea.

HELBURU ZEHATZAK:

- EGKren lana sozializatzea eta ikusgai bihurtzea.
- Gazteriaren perspektiba bat ematea beste erakunde eta administrazio batzuen proiektuetan, EGK erreferente bihurtuz.
- EGK-ko proiektuetan gazte berrien parte hartzea lortzea.
- EGK-ko elkarteen artean etxebizitza lantzen dutenekin harremana sendotzea.

Garapena

EKINTZAK:

Emantzipazio arloko agenteekin (elkarteak eta administrazioak) bilerak egin harremanak sendotzeko eta berriak egiteko.

EGK-ko eta EGK-koak ez diren elkarteen artean gazteen parte hartzea bultzatu emantzipazio proiektuetan.

Emantzipazioaren arloan EGK-k landu ez dituen arazoak dokumentatu.

EGKrentzat interesgarriak diren proiektuetan eta jardunaldietan parte hartu.

KRONOGRAMA:

URT	OTS	MAR	APIR	MAI	EKA	UZT	ABU	IRA	URR	AZA	ABE

Ebaluazioa

- Eragile publiko eta pribatu esanguratsuenekin biltzea.
- Egindako kontaktu berri kopurua.
- EGK eragile ezagun horien artean ezagutzera eman izana.

1.7 Egunerokoa

EGKn lan-arlo bakoitzetik kanpo egin beharreko lanak biltzen dira etxebizitza lan-arloaren egunerokoan, EGKren funtzionamendu egokia bermatzeko eta honen helburu orokorrak lortzeko.

Helburuak

HELBURU OROKORRA:

EGKren funtzionamendua bermatzea beste lan eremuekin elkarlan egiten eta urtean zehar heltzen diren eskaera generikoei erantzuna emanez.

HELBURU ZEHATZAK:

- Prentsarekin lan egitea hauek eskatzen dutenean.
- Gazteria Planak, Gazteria Legea eta beste gazteria dokumentuen jarraipena egitea.
- Etxebizitza eta gazteriaren gaineko datu eguneratuak izatea.
- Beste lan-arloen lanaren kontrastea egitea.
- Lantaldearen formazioan parte hartzea.
- Lan-arloarekin zerikusia duten aholkularitzak egitea.
- Batzorde Iraunkorrarekin eta lankideekin harremana/lankidetza.
- Memoria eta Plangintza kudeatzea eta ebaluatzea.
- EGKren funtzionamendurako beharrezkoak diren bileretan parte hartzea.

Garapena

EKINTZAK:

Prentsarekin lan egin hauek eskatzen dutenean..

Gazteria Planak, Gazteria Legea eta beste gazteria dokumentuen jarraipena egin.

Beste lan-arloen lanaren kontrastea egin.

Egutegiak hala eskatzen duenean ekintza desberdinak burutu.

Aholkularitza eman.

Memoriak eta 2021 urterako plangintzak prestatu.

KRONOGRAMA:

URT	OTS	MAR	APIR	MAI	EKA	UZT	ABU	IRA	URR	AZA	ABE



Ebaluazioa

- Barne komunikazioa eta kalitateko kontrasteak.
- EGKren eguneroko lana eta funtzionamendu egokia.
- EGKren kanpo komunikazioa nolakoa den.
- Bileren eraginkortasuna.

2. ENPLEGUA

Lan merkatuan ematen den prekaritateak gazteen autonomia pertsonal zein kolektiboa zaildu eta berandutu egiten du. Independentzia materialaren gaineko haustura honek, gazteen hiritartasuna guztiz ahultzen du bizitza proiektu autonomo eta propioa garatzeko baliabide ekonomikoen falta dakarrelako.

Gazteak 2008. urteko krisiaren ondorioak zuzen pairatu dituen belaunaldia gara, gainera Covid19aren krisiak jada prekarioa zen egoera horri oztopo gehiago jarri dizkio, langabezia eta prekaritatea areagotuz.

Enpleguko lan-arloan, gazteen errealitatea aztertu eta hauen independentzia materialean, askatasunean, duintasunean eta bizitza kalitatean garrantzi handia duten gaiak landuko dira, Horretarako eta prekaritate horri aurre egiteko ezinbestekotzat jotzen den kalitatezko enplegua landuko da, baita hezkuntza mundutik lan mundurako trantsizio horren nondik norakoak ere.

2.1 Emantzipa...Zer? lantaldea

Gazteen egoera inoiz ez da bereziki ona izan etxebizitza, enplegua eta emantzipazioari dagokionez, eta ez dira gutxi izan eskubide honen alde egin izan diren egitasmoak.

Haatik, 2008ko krisi ekonomikoa hasi zenetik, etxebizitza ez lortzea edo galtzea eta enpleguaren prekaritatearen arazoa orokortu egin da. Ondorioz, gazteek emantzipatzeko dituzten arazoek protagonismoa galdu dute, arazo orokorrago batean nahasiz. Halaber, COVID-19ak sortutako krisiak gogor kolpatu du gazteria eta aurten ere, lan handia egon da egiteko. Luze da EGKtik egoera horiek salatzen direla, ez bakarrik azken urteotako egoera ekonomikoren ondorioz, baizik eta lehenagotik pairatutako baldintzengatik ere.

Hori dela-eta, garrantzitsua da gaztez osaturiko etxebizitza eta enplegu lantalde indartsu bat osatzea, gazte hauen nahiak eta beharrak politika publikoetara helarazteko. Azken urteetan diskurtso sakon eta indartsua landu izan da, eta zenbait kargu politikoren aurrean garrantzizko eragile bilakatzea lortu da. Nahiz eta enplegu eta etxebizitza lan-arloak banatu, **Emantzipa...zer?** lantaldea enplegu eta etxebizitza gaiak jorratzeko baliatuko da. Aurten, lantaldea indartzen jarraitzeko asmoarekin gazte kolektibo zein norbanako berriengana hurbiltzeko saiakera egingo da, lantzeko gai desberdinak planteatuz.

Lantalde hau etxebizitza lan-arloarekin batera koordinatuko da.

Helburuak

HELBURU OROKORRA:

Gazteriaren perspektiba batetik honi loturiko enplegu eta etxebizitza ekimenak eta neurriak aztertzea, administrazioei hausnartutako ondorioak helarazi ahal izateko eta horrela politika publikoetan eragitea.

HELBURU ZEHATZAK:

- Gazteak eta gazte-elkarteak enplegu eta etxebizitza arloen gainean batuko dituen eztabaidagune bat ezartzea.
- Gazteria eskubide osoko subjektu bezala aintzakotzat hartzea, defendatzea eta alternatiba eta hobekuntza-proposamenak sortzea.
- Eztabaidagunean sortutako ekimenei jarraipena ematea eta horren funtzionamenduak kudeatzea eta bultzatzea gazte berrien parte-hartzea lortuz.
- Gazteriari enplegu eta etxebizitza arloen inguruan formazioa eskaintzea, haien bizi baldintzen alde egiten jarraitzeko.

Garapena

EKINTZAK:

Lantaldearen koordinazioa eta proposamenei jarraipena eman.

Administrazioek garatutako enplegu eta etxebizitza politika publikoen kontrastea egin eta hobekuntza proposamenak sortu.

Gazte bat etxe-kaleratzen duten kasuetarako protokolo baten beharrari buruzko hausnarketa bideratu.

Lantaldearen bileren zabalpena egin gazte berriek parte hartu dezaten.

Lan arloko nazioarteko egunak landu.

Urtearen ebaluazioa eta 2022ko plangintzaren onespena egin.

KRONOGRAMA:



Ebaluazioa

- Lantaldearen funtzionamendua eta gazteen parte-hartzea: deialdien arrakasta hausnarketen sakontasuna, kideen proaktibotasuna eta proposatutako proiektuak.
- Egindako hausnarketan sakontasuna eta landutako ekimenen bideratzea.
- Administrazio eta kargu politikoen jarrera gazteen proposamen eta hausnarketen aurrean: eskatutako bilerak onartzen dituzten, eskaerak entzuten dituzten, hauek politika publikoetan barneratzen dituzten, etab.

2.2 Lan istripuen protokoloa

EGK-k 2017an gazteen lan istripuen aurrean salaketa publikoa egiteko protokoloa garatu zuen. Lan istripua Euskadin ematen den edo Euskadiko gazte bati 16 eta 30 urte bitartekoa eragiten dion kasuetan aktibatzen da, langilea larriki zauritzen edo zentzen denean.

Honen bitartez, istripuaren errudun den prekaritatea salatzeko adierazpen publikoa egiten da. 2021. urtean zehar hau aurrera eramaten jarraituko da.

Helburuak

HELBURU OROKORRA:

Maiztasunez gertatzen diren eta gazteei bereziki jotzen dieten gertaerak eta haien arrazoiak publikoki salatzea.

HELBURU ZEHATZAK:

- Gazte langileen heriotza edo osasun arazoak dakarten lan istripuen arrazoi diren egoera prekarioak eta bestelako lan baldintzak salatzea.
- Lan istripuen protokoloa genero ikuspegiarekin aztertzea eta moldatzea.
- Gazteriaren duintasun sozioekonomikoaren oinarriak aldarrikatzea, lan baldintzak eta lan osasuna hobetzeko.
- Lan istripuen datuak jasotzen dituzten erakunde ezberdinekin harremanetan ipintzea.
- Arazoaren aurrean EGKren errefusa postura argi gizarteratzea.

Garapena

EKINTZAK:

Protokoloaren datuak eguneratu.

Lan istripuen ondoriozko gazte heriotzen eta istripuen salaketa.

Protokoloaren genero ikuspegiko lanketa egin.

KRONOGRAMA:

URT	OTS	MAR	APIR	MAI	EKA	UZT	ABU	IRA	URR	AZA	ABE

Ebaluazioa

- Balizko lan istripuak gertatutakoan jakinaren gainean egon izana eta prozedura hau hobetu izana.
- Protokoloa aktibatu izana beharrezkoa izan bada.
- Lan istripuen datuak jasotzen dituzten erakunde ezberdinekin izandako harremana.
- Protokoloa aktibatzerakoan honek izan duen zabalpena eta irismena.
- Lan istripuen genero ikuspegiko moldaketen prozedura.

2.3 Enplegu arloko data esanguratsuen egutegia

EGK-k enplegu inguruko aldarrikapenei lotutako nazioarteko egunak baliatzen ditu bere mezua zabaltzeko. 2021an egutegi hori osatzen joango da eta data esanguratsuetan dagokion manifestua eta komunikazio kanpaina egingo da.

Helburuak

HELBURU OROKORRA:

2021. urtean zehar enpleguarekin zerikusia duten data garrantzitsuak markatzea eta egun horietan EGKren manifestu edo diskurtsoa plazaratzea.

HELBURU ZEHATZAK:

- Data esanguratsuen garrantzia azpimarratzea eta gaur egungo egoerarekin lortzea.
- Gazteriak egun horiek ezagutzea.
- EGKn parte hartzea bultzatzeko tresna bezala erabiltzea.
- EGKn parte-hartzen duten elkarteak data hauetan publikatutako manifestu eta diskurtsoetan inplikatu eta hauen atxikimenduak aurrera eraman indarrak batzeko.

Garapena

EKINTZAK:

Emakume eta gizonen arteko soldata berdintasunaren aldeko Europako egunean (otsailaren 22an). Emakumeen prekaritatea eta errealitatea adieraziko duen manifestua gaurkotu, atxikimenduak lortu eta honen zabalpena egin egun horretan.

Lan Osasunaren Nazioarteko egunaren (apirilak 28) manifestua gaurkotu, atxikimenduak lortu eta honen zabalpena egin egun horretan.

Maiatzaren 1ean, Langilearen egunean gazteriaren egoera prekarioa azaleratu eta EGKren diskurtsoa zabaldu.

Lan Egokiaren egunean (urriak 7) manifestua eguneratu, atxikimenduak lortu eta plazaratu egun horretan.

KRONOGRAMA:

URT	OTS	MAR	APIR	MAI	EKA	UZT	ABU	IRA	URR	AZA	ABE



Ebaluazioa

- Egindako kanpainen difusio maila eta hedapena.
- Egindako kanpainen eta manifestuen atxikimenduak.
- Komunikabide eta gizarte eragileen zein gazteen atentzioa eman izana.
- Egun gehiago identifikatu izana.

2.4 Zaintzen Plaza

Pertsonek zaintzak jasotzeko beharra dugu gure bizitza guztian zehar, izaki zaurgarri eta elkarren mendekoak garelako. Zaintzarik gabe bizitzari eustea ezinezkoa da. Historikoki emakumeak izan dira zaintza lanak eta lan erreproduktiboak bere gain hartu dituztenak. Lan ikusezin bat izan da, gutxi baloratua, baina oso zentrala. COVID-19aren krisiak agerian utzi ditu eredu honen gabeziak eta zaintzen garrantzia, eta beraz, jendarte bezala, kolektiboki, zaintzen erantzukizun soziala hartzeko dugun beharra.

Zaintzez hitz egitean gutako bakoitzaren bizitzak bere egunerokotasunean funtzionatzea ahalbidetzen duten ezinbesteko ekintza guztiez ari gara, eguneroko bizitzaren berreraikitze prozesuaz, ongizate fisiko eta emozionala sostengatzen dituena. COVID-19aren krisian guztia geratu zenean geratu ezin izan ziren lan guzti horietaz.

'Zaintzen Plaza' izeneko proiektu honekin, gai hau EGKra ekarri nahi da EGKra. Plaza bat sortu nahi da, espazio bezala. Elkarren artean hitz egiteko eta ikasteko gune moduan.

Horretarako, publiko nagusia **Ematzipa...zer ?** lantaldea eta **Gaur8** lantaldea izango dira. Tresnak emango ditugu diskurtsoak sortzeko, talde izaera garatzeko eta zaintzen inguruko ezagutza handitzeko. Horrez gain, plaza, beste norbanako eta eragileei ere zuzendurik egongo da, puntualki lantzen diren hitzaldietan parte hartzeko edota konstanteki diskurtsoak garatzen laguntzeko ere bai.

Proiektu hau, beraz, Berdintasun eta Etxebizitza lan arloekin batera koordinatuko da.

Helburuak

HELBURU OROKORRA:
Gazteriaren ikuspuntutik zaintza zentroan jartzen duten ereduak lantzea alor desberdinetatik.

HELBURU ZEHATZAK:

- Gazteriari zaintza lanak bizitza posible egiten duten ekintza multzo zabal eta ezinbesteko bat bezala ikusaraztea.
- Zaintza lanei duten garrantzia eta duintasuna ematea eta erantzukizun soziala zein norbanakoena sustatzea gazteen artean.
- Gazteen artean hausnarketa eta elkarbanatzeko espazio bat sortzea.
- Zaintza lanak gazteekin alor desberdinetatik lantzea, bizitzaren esfera guztietan eragina dutela ikusarazteko.
- Gazte eragile desberdinek zaintzen inguruan duten diskurtsoez baliatuz EGKren diskurtso propioa sortzea.

Garapena

EKINTZAK:

Zaintza lanak aztertu eta landu EAEko testuingurua kontuan izanik.

Zaintzak lantzen dituzten eragileak edota gazteak identifikatu eta hauekin harremanetan jarri.

Plazaren dinamizazioa aurrera eraman: hitzaldiak prestatu, dinamikak kudeatu...

Plazaren dinamikaren ondorioak landu.

KRONOGRAMA:

URT	OTS	MAR	APIR	MAI	EKA	UZT	ABU	IRA	URR	AZA	ABE

Ebaluazioa

- Ateratzen diren diskurtsoen sakontasuna eta gaiaren lanketa kualitatiboa.
- Gai honen aurrean gazteen erantzuna. Plazari dagokionez, kuantitatiboki eta baita ere kualitatiboki (jarrera, interesa etab.).
- Zaintzen plazarekin lotuta lantzen diren gaien aniztasuna.
- Plazan hausnartutakoak zenbateko irisgarritasuna duen gazteengan eta beste eragile batzuengan.

2.5 Kalitatezko Enplegua hiruburua

Euskal gazteriaren arabera euskadiko arazo nagusien artean lan-merkatuari lotutakoak daude. 2008. urteko krisiaz geroztik gazteak bizi duten egoera prekarioa areagotu egin da Covid19ak sortutako krisiarekin.

Krisietaz aparte, lan munduan indarra hartu duten kontratatzeko formula ezberdinak: praktiketarako kontratuak, bekak, lanaldi-partzialak, aldi baterako kontratuak, soldata baxuak... gazteen prekaritatea sustatzen dute ere, haien bizitza proiektuak burutzeko oztopoak jarriz.

Egoera hau izanda ezinbestekoa ikusten da EGKtik benetako kalitatezko enpleguak sustatzea eta bermatzea, gazteen bizitza kalitatea ere hobetu dezan, haien bizi proiektuarekin aurrera egin ahal izateko.

Horretarako, kalitatezko enpleguaren gaia ardatz harturik eta egungo egoeraren diagnostiko sakonagoa egiteko, kalitatezko enpleguarekin harremantzen diren azpi-gai ezberdinak mahai gaineratuko dira enpleguaren inguruan aritzen diren agenteen (gazteak, teknikariak eta politikariak) iritzia jasotzeko eta ikuspuntuak elkarbanatzeko asmoz.

Helburuak

HELBURU OROKORRA:

Gasteizko gazteriaren lan egoeraren azterketa egitea, gaiarekiko interesa piztea, eta honen inguruko hausnarketan sakontzea kalitatezko enplegua landuz.

HELBURU ZEHATZAK:

- Enpleguaren eta gazteen enpleguarekin harremanduta dauden agente, gazte eta eragileren arteko koordinazio eta hausnarketarako gune bat sortzea.
- Kalitatezko enpleguaren inguruko gazteen esperientziak biltzea eta iritziak jasotzea.
- Gazteriaren enpleguen indar-gune eta ahulguneak identifikatzea.
- Administrazioei kalitatezko enplegua sustatzeko proposamenak egitea.
- Gazteak, teknikariak eta politikariak kalitatezko enpleguaren inguruan eztabaidatzeko eta hausnartzeko gune bat sortzea.

Garapena

EKINTZAK:

Hiruburuaren aurre lanketa: landuko diren edukiak identifikatu eta landu.

Hiruburuaren prestaketa: espazioa aukeratu, materiala prestatu, kalitatezko enpleguarekin harremana duten eragileak identifikatu.

Hiruburuaren egitura prestatu.

Hiruburuaren parte hartzaile interesatuak identifikatu eta hiruburuaren hedapena egin.

Hiruburuaren gauzatzea

Hiruburuaren ondorioak jaso.

KRONOGRAMA:

URT	OTS	MAR	APIR	MAI	EKA	UZT	ABU	IRA	URR	AZA	ABE

Ebaluazioa

- Hiruburuaren funtzionamendua eta honen lorpenak.
- Gazteen parte-hartzea eta interesa.
- Parte-hartzaile kopurua eta hauen ekarpenen aberastasuna.
- EGK-k Kalitatezko enpleguaren inguruko diskurtsoa osatzeko irizpideak lortu izana.
- Administrazio eta gazteen arteko harremana.

2.6 "Ikasketak bukatu ostean zer?" formazioak

Esan daiteke gaur egungo gazteria ikasketei dagokionez prestakuntzarik hoberena duen belaunaldia dela. Bere egoera prekarioa ere nabarmentzekoa da enplegu arloan. Honen aurrean kalitaztezko enpleguaren gaineko hausnarketa burutzea, formula berriak sortzea eta sustatzea ezinbestekoa da.

Horretarako eta aldarrikapenak indarra lor dezaten, ezinbestekoa ikusten da enplegu arloaren nondik norakoak ezagutzea eta langile moduan zein enplegu bilatzaile bezala existitzen diren eskubide eta betebehar guztiak ezagutzea eta aplikatzen jakitea. Kontratuen letra txiki guztien esanahiak eta aplikazioak ezagutzea, langile bezala existitzen diren baimen eta eskubideak, langabezian zein ERTEan edo EREan egotea zer suposatzen duen, existitzen diren kontratu formula ezberdinak ezagutzea, Covid19a dela eta gertatu daitekeena eta honi nola aurre egin...

Helburu hauek lortu aldera eta gazteriari gai honen inguruko jakintzak lortzeko aukera eskainiz, 2021. urtean zehar burutuko diren EGK-ko elkarteen topaketetan, aipatutako gaien inguruko formakuntzak emango dira. Enplegu arloan eta gai hauen inguruan jakitun diren eragile ezberdinen eskutik.

Helburuak

HELBURU OROKORRA:

Gazteak lan munduan izan dezaketen zalantzei aurre egiteko erremintak ematea.

HELBURU ZEHATZAK:

- Gazteriak ikasketen eta lan munduaren artean daukan trantsizioa aztertzea, eta hau errazteko formulak eskaintzea.
- Enpleguko baldintza egokiak sustatzeko gazteriaren jakintzak sustatzeko formazio ezberdinak eskaintzea.

Garapena

EKINTZAK:

Gazteriak ikasketak bukatzerakoan bizi duen egoera ezagutu.

Formakuntzak eskainiko dituzten eragile ezberdinak identifikatu eta haiekin harremanetan jarri.

Elkarteen topaketan formakuntzak emateko beharrezko materiala prestatu eta parte hartzaileekin harremanetan jarri.

Elkarteen topaketaren eta formakuntzen zabalpena eta gauzatzea.

Formakuntzen ondorioak atera.

KRONOGRAMA:

URT	OTS	MAR	APIR	MAI	EKA	UZT	ABU	IRA	URR	AZA	ABE



Ebaluazioa

- Parte-hartzaile kopurua.
- Parte-hartzaileek eta gazteriak adierazten duen interesa.
- EGKren diskurtsoa osatzeko formakuntzak eskaintzen duten aberasgarritasuna.

2.7 Ikertzaile gazteak

Ez da zalantzan jartzen ikertzen aritzen diren gazteek gizarteari egingo dioten ekarpenen balioa handia izango dela. Baina nolakoak dira haien baldintzak ikertzen dauden bitartean? Urtero Euskadin gazte askok burutzen duituzte aurrekodoktoregoko lanak, izan doktoregoa edo doktorego ondokoa. Unibertsitateetako zein gobernuko bekak jasota, kontratuarekin edota dohainik ikertzen ordu asko ematen dituzte gazte askok haien bizitza proiektuak lan honen baitan kokatuz.

Lan munduan batez ere gazteen artean ematen den prekaritatea (ordu extrak, soldata baxuak, praktiketako kontratuak...) ikertzaile gazteen errealitatea bada ere. Egoera hau izanda EGK gazte hauen egoerara hurbildu nahi da, gazte hauek bizi duten egoera ezagutzeko eta lan baldintza duinen eta ondorioz bizitza duin baten alde egiteko.

Helburuak

HELBURU OROKORRA:
Euskadin ikertzaile moduan aritzen diren gazteen lan baldintza duinen alde egitea.

HELBURU ZEHATZAK:

- Ikerketan dauden gazteei haien baldintza duinen alde egiteko taldea sortzeko eman beharreko pausuekin laguntza eskaintzea. Parte-hartze teknikariarekin batera.
- Ikertzaile gazteen lan baldintzak ezagutzea eta ezagutzera ematea.
- Honetan diharduten gazte eta eragile ezberdinak duten diskurtsoez baliatuz EGKren diskurtso propioa sortzea.
- Hausnarketa eta elkarbanatzeko espazio bat sortzea.
- Ikertzaile gazteen aldeko lan baldintza duinen alde egitea.

Garapena

EKINTZAK:

Harremana egitea Euskadiko unibertsitate ezberdinetan ikerkuntzan dabiltzan gazte eta eragileekin.

EHUko ikerlari doktoregaiei haien baldintza duinen alde egin dezaten talde izaera sortzen eta mantentzen lagundu.

Gai honen inguruan EGKren diskurtsoa sortzea eta gizarteratzea.

Gai honen inguruan ikertzaile gazteek hausnartzeko gune bat sortzea eta koordinatzea.

KRONOGRAMA:

URT	OTS	MAR	APIR	MAI	EKA	UZT	ABU	IRA	URR	AZA	ABE

Ebaluazioa

- Parte-hartzaile kopurua eta hauen interesak.
- Ateratzen diren diskurtsoen sakontasuna eta gaiaren lanketa kualitatiboa.
- Gai honekiko lorpenak eta ekarpenen aberastasuna.

2.8 Enplegu lan arloan lan egiten duten elkarteekin harremana

Enplegu alorrean eragile asko eta anitzek dute zer esana. EGKrentzat funtsezkoa da eragile hauekin harremana sortzea eta mantentzea. Alde batetik gazteekin, hauen beharrak lehen eskutik ezagutzeko. Bestetik, eragile publikoen kasuan, gazteen iritzia hauengana transmititzeko eta erabaki publikoetan ahalik eta gehien eragiteko.

Helburuak

HELBURU OROKORRA:
EGKren eta enplegu arloan lan egiten duten elkarteen, eragileen, instituzioen, administrazioen eta arduradunen artean harremana sortzea.

HELBURU ZEHATZAK:

- EGKren lana sozializatzea eta ikusgai bihurtzea.
- Gazteriaren perspektiba bat ematea beste erakunde eta administrazio batzuen proiektuetan, EGK erreferente bihurtuz.
- EGK-ko proiektuetan pertsona gazte berrien parte hartzea lortzea.
- Emantzipa...Zer? lantaldean pertsona eta elkarte gazte berrien parte hartzea lortzea.

Garapena

EKINTZAK:

Enpleguaren arloko agente ezberdinekin (elkarteak, eragileak eta administrazioa) bilerak egin harremanak sendotzeko eta harreman berriak sortzeko.

EGK-ko eta EGK-koak ez diren elkarteen artean gazteen parte hartzea bultzatu enpleguko

proiektuetan.

Enpleguaren arloan EGK-k landu ez dituen arazoak dokumentatu.

EGKrentzat interesgarriak diren beste eragileen proiektuetan eta jardunaldietan parte hartu.

KRONOGRAMA:

URT	OTS	MAR	APIR	MAI	EKA	UZT	ABU	IRA	URR	AZA	ABE

Ebaluazioa

- Eragile publiko eta pribatu esanguratsuenekin izandako bilkura.
- Egindako kontatu berrien kopurua.
- EGK eragile ezagun horien artean ezagutzera eman izana.

2.9 Eguneroko lana

EGKn arlo bakoitzetik kanpo egin beharreko lanak, EGKren funtzionamendu egokia bermatzeko eta honen helburu orokorrak lortzeko bideratuko da atal hau. Bilerak, egoitzaren kudeaketarako lanak, aholkularitza, proiektuen planifikazioa eta justifikazioa besteak beste izango dira honen baitan.

Helburuak

HELBURU OROKORRA:

EGKren funtzionamendua bermatzea beste lan eremuekin elkarlana egiteko eta urtean zehar heltzen diren eskaera generikoei erantzuna ematea.

HELBURU ZEHATZAK:

- Komunikabideekin lan egitea hauek eskatzen dutenean.
- Gazteria Planak, Gazteria Legea eta beste gazteria dokumentuen jarraipena egitea.
- Beste lan arloen lanaren kontrastea egitea.
- Lan taldearen formazioan parte hartzea.
- Lan-arloarekin zerikusia duten aholkularitzak egitea.
- Batzorde Iraunkorrarekin eta lankideekin harremana eta lankidetza izatea.
- Memorien eta Plangintzen kudeaketa eta ebaluazioa egitea.
- EGKren funtzionamendurako beharrezkoak diren bileretan parte-hartzea.

Garapena

EKINTZAK:

Komunikabideekin lan egitea hauek eskatzen dutenean.

Gazteria Planak, Gazteria Legea eta beste gazteria dokumentuen jarraipena egin.

Beste lan arloen lanaren kontrastea egin.

Egutegiak hala eskatzen duenean ekintza desberdinak burutu.

Aholkularitza egin.

Memoriak eta 2021. urterako plangintza prestatu.

KRONOGRAMA:

URT	OTS	MAR	APIR	MAI	EKA	UZT	ABU	IRA	URR	AZA	ABE

Ebaluazioa

- Barne komunikazioa aproposa izatea eta kalitateko kontrasteak egitea.
- EGKren eguneroko lana eta funtzionamendu egokia bermatzea.
- EGKren kanpo komunikazioa erraztea.
- Bileren eraginkortasuna.

3. HEZKUNTZA

Pertsonen eta kasu honetan konkretuki pertsona gazteen garapenerako EGK-k ezinbestekotzat jotzen duen osagaia eta aspektua da hezkuntza. Lan-arlo honek,bi atal berezitu biltzen ditu bere baitan: hezkuntza ez-formala eta hezkuntza formala.

Hezkuntza ez-formala, hezkuntza sistematik kanpo aurkitzen diren arututako ikaskuntza-prozesuek osatzen dute eta lana ezaugarri askotako eta desberdinak dituzten agente artean eramaten da aurrera. EAEko elkarte eta eragile desberdinen elkarlanerako guneen bitartez,astialdian lan egiten duten elkarteekin koordinazio eta harreman jarraikorraren bitartez, EGK-k astialdiaren garapena bultzatzea du helburu. Aisialdi hezitzaileko elkartegintza indartu nahi da, balioen heziketa eta astialdiaren bitarteko gizarte eraldaketa bermatuz eta horretarako lan eginez: ekimenak sustatuz.

Hezkuntza formalean, Unibertsitateko zein lanbide heziketako gazte elkartegintza eta ikasle ordezkaritzako egituren bitartez ikasleen beharrak, kezkak edo proposamenak jasotzen dira. Ondoren, errealitatearen azterketarekin batera, aldarrikapenak eta hobetzeko proposamenak adosten dira elkarren arteko dinamikak eta hausnarketarako guneakgaratuz. Gazteen ahotsa entzuna izan dadin egiten da lan eta administrazio zein ikasleen arteko zubi-lana burutzen da lan-arlo honetan. Gai desberdinak landu eta sakontzearen bitartez egiten da hori.

Premia edo beharrak identifikatu eta hauek bideratzen saiatzea da beraz eginkizuna kasu honetan, hezkuntza panorama osoa hartuz, ikuspegiak konpartituz eta berau osatzen duen hezkuntza komunitatearen ikusgarritasunean edo ahotsean fokua jarriz.Jarraian xehetasun gehiago.

3.1 HEZKUNTZA EZ-FORMALA

3.1.1 Hezkuntza ez formaleko taldeekin koordinazioa

Astialdi munduko elkarte eta eragile ezberdinen elkarlanerako gunea izan nahi du EGK-k. Euskadiko Astialdiaren garapena bultzatzea du helburu, elkarteen arteko koordinazio eta bitartekaritza, ekimenen oinarrizko aholkularitza, taldeen arteko hausnarketa, formazioa eta sentsibilizazioa abiapuntutzat hartuta. Astialdiari lotutako elkartegintza indartu nahi da, baita balioen heziketa eta astialdiaren bitarteko gizarte eraldaketa bermatutako ekimenak bereziki sustatu ere.

Premiak zein beharrak identifikatu eta hauei erantzun bat ematerako bidean akonpainamendu lana da egitekoa zentzu honetan, aholkularitzaren bitartez.

Lana hiru lurraldeetan bereizten da kasuan kasu, behar edota gai zein bideak momentuko eta tokian tokiko errealitatera egokitzen baitira eta horren arabera desberdinak direlako. Lanketa berezitu hauez gain, lurralde guztiei eragiten dieten kontuetarako ordea, elkarlanean eta espazioa konpartituz lantzen dira gaiak, esaterako legedi kontuetan, kualifikazioak ebaluatzerako orduan, ziurtagirien gaia mahai gainean jartzean, praktikaldien baldintzak jorratzean...eta abar.

Ikuspegi orokor baten bitartez, sektorean existitzen diren erronka eta zereginak identifikatu eta administrazioari helarazten zaizkio egiten den lana balioan jarriz eta honi ikusgarritasun bat eman nahian.

Helburuak

HELBURU OROKORRA:

Astialdi hezkuntzari eta honetan lan egiten duten eragileei aintzatespena, balioa eta ikusgarritasuna ematea.

HELBURU ZEHATZAK:

- Astialdi hezkuntzako taldeei aholkularitza-zerbitzua eskaintzea, hala eskatzen badute.
- Astialdi hezkuntzaren inguruan sortzen diren proiektuak eta eztabaidak koordinatzea: Proposamenak eta aldarrikapenak administrazioei helaraztea eta honek eskatzen dituen eguneroko kudeaketak egitea (deialdiak, aktak...)
- Astialdi hezkuntzako taldeen egoera, hobekuntza eta eraginkortasuna etengabe eta modu jarraikorrean ebaluatzea.

Garapena

EKINTZAK:

Hiru lurraldeetako astialdi taldeak koordinatu eta hauen beharrei erantzun.

Tarteko ebaluazio saioak. Talde osasun ariketak: taldeen momentuko egoeraren argazkia egin.

2022eko planak zehaztu.

KRONOGRAMA:

URT	OTS	MAR	APIR	MAI	EKA	UZT	ABU	IRA	URR	AZA	ABE

Ebaluazioa

- Taldeen egoeraren ezagutza maila.
- Behar eta premiei erantzuteko jarritako helburuak betetzea.
- Elkarte-administrazioaren arteko zubi lanaren gauzapena eta honen emaitzak.

3.1.2 Astialdiko Ikastaroen kanpaina

Astialdiko ikastaroen eskaintzaren gaineko nondik norakoak pertsona gazteei helarazteko, urtero bezala, informazio kanpaina bat aurrera eramango da aurten ere.

Honakoa sare sozialetan argitaratuko da zerrendatze baten bitartez eta, bertan, eskaintzen den informazio espezifikoa jasotzeaz gain, EAEko eskola bakoitzaren harremanetarako bideak eskainiko dira, klik baten bidez aurkitu ditzaten gazteek. Hau, informazioa modu ordenatu, heldugarri zein erakargarrian bilduta egon dadin gauzatuko da.

Gainera, ikastaroen zabalpenari dagokionean beste bide batzuetatik garatzen den aholkularitza ere emango da, esaterako telefono bidez edo emailez eskaintzen dena, bidean sortzen diren zalantza eta beharrei erantzuteko asmoz. Honakoa bide zuzenago bat gazteen eskura jartzeko aukera izango da, zehaztapen guztiekin komunikazio kanal arin bat beharra duten pertsonen eskura jarriz eta lana errazteko asmoz.

Helburuak

HELBURU OROKORRA:

EAEko ikastaroen berri ematea.

HELBURU ZEHATZAK:

- Astialdiko ikastaroen eskaintza sare sozialen bidez jasotzea.
- Elkarteak eta astialdiko eskolak ezagutzera ematea.
- Zuzeneko aholkularitza sistematizatzea eta erraztea.

Garapena

EKINTZAK:

Astialdiko ikastaroen informazioa bilketa.

EAEko ikastaroen zabalpena online formatuan.

KRONOGRAMA:

URT	OTS	MAR	APIR	MAI	EKA	UZT	ABU	IRA	URR	AZA	ABE

Ebaluazioa

- Informazio bilketa.
- Zabalpenean irekitako bide berriak (prentsa, gazte bulegoak, gazteen sare sozialak, elkarteekin interakzioa...)
- Kontsulta kopurua ikastaroen zabalpenean zehar: bai webgunean eta baita beste aholkularitza bitartekoen bidez ere.

3.1.3 Udako kanpaina

Astialdian boluntario gazteek antolatutako udako ekintzen ezaguera eta zabalpena helburu duen kanpaina da honakoa. Bertan, EGKren baitan lan egiten duten eragileez gain, EAEko edozein astialdi talderen ekintzen zabalpena burutzen da ahalik eta informazio bilketa eta zabalpen osatuena sortzeko. Aurten ere udako eskaintza hau sare sozialen bidez zein webgunean jasoko da. Online zabalpenaz aparte, gainera, kanpainaren nondik norakoak jasotzeko aholkularitza zerbitzu zuzena jasotzeko edo izateko aukera egongo da aurten ere.

Helburuak

HELBURU OROKORRAK:

- Astialdi taldeek udan antolatzen dituzten ekintzak eta hauen eskaintza desberdinak jasotzea, antolatzea eta gizarteratzea.

Garapena

EKINTZAK:

Datuen bilketa.

Webgunean informazioa argitaratu.

Kanpainaren zabalpena.

KRONOGRAMA:

URT	OTS	MAR	APIR	MAI	EKA	UZT	ABU	IRA	URR	AZA	ABE

Ebaluazioa

- Udako ekintzen zenbatekoa.
- Udako kanpainaren zabalpena.
- Webgunearen bisita kopurua udako ekintzan zabalpenean zehar.

3.1.4 Hezkuntza ez formaleko lantaldea

Hainbat pertsona boluntario gaztek lan handia egiten dute urte osoan zehar gizartearentzako proiektu eta ekintza aberasgarriak aurrera eramanez. Hezkuntza ez formaleko lanketak gizartera zabaltzeko helburuarekin eta gazteek honen baitan hartzen duten paperaz zein arduraz hausnartzeko, aurten hausnarketarako bide berri hau zabaldu nahi da. EGKtik lan hau balioan jartzeko helburuarekin protagonista gazteekin saretze bat eman eta elkarren arteko harremana indartu nahi da.

Hirugarren sektorean lanean aritzen diren elkarte eta eragileen aitorpena egin nahi da gainera honekin batera, gaiari behar duen tokia emanez eta lan hau egunerokotasunean oinarrituta ikusgarri eginez.

Zentzu honetan, aurreko urteetan egindako boluntariotzaren inguruko esperientzia eta ondorioak jaso eta hauek zabalduko dira esaterako, gazteen arteko sarea indartzeko asmoz. Egindako lanari balioa atera eta aitortza bat emanez gazte sektoreari zuzendutako mezuak garatu eta zabaldu nahi dira lan taldearen bitartez, bereziki: hezkuntza prozesu hauen baitan oinarritutako iritziak bilduz eta partekatuz, betiere hezkuntza ez formalaren ikuspegitik.

Gai hau egunerokotasunean lantzeaz eta ikusarazteko jarduna burutzeaz gain, egun konkretuen balioa ere presente izango da. Beste behin ere, mota honetako lanketak, ospakizunez gain aldarrikapenen bitartez zabaldu nahi dira eta sortzen doazen dinamika desberdinetan parte-hartze aktiboa burutuko da.

Helburuak

HELBURU OROKORRA:

Hirugarren sektorean lanean aritzen diren norbanako gazte zein elkarte eta eragileen aitorpena burutzea.

HELBURU ZEHATZAK:

- Gazteek hezkuntza ez formalean duten papera balioestea.
- Aurreko urteko lanketa eta dinamiketan garatutako diskurtsoa ezagutzera ematea eta zabaltzea, gazte subjektua erdigunean jarriz.
- Astialdiko eragile zein elkarte boluntarioei protagonismoa ematea.
- Boluntariotzaren grina piztea.
- Abenduaren 5a, nazioarteko boluntariotza eguna, gizarteratzea.

Garapena

EKINTZAK:

Gazteek hezkuntza ez formalaren gainean duten diskurtsoaren zabalpena.

KRONOGRAMA:

URT	OTS	MAR	APIR	MAI	EKA	UZT	ABU	IRA	URR	AZA	ABE

Ebaluazioa

- Hedapena.
- Gazte berriekin sortzen den sarea.
- Harremanak oro har (administrazioak, boluntariotza agentziak, eragile berriak...).

3.1.5 Hezkidetzaren lanketa

Aurreko urtean, "Haziak Astialdira" proiektuaren bitartez, hezkidetza hezkuntza ez formalean nola ematen den landu zen EGK-ko hezkuntza eta berdintasun lan arloetatik. Astialdi munduan lanean dabiltzan zenbait elkarterekin ateratako lan saio dinamiko batzuen bitartez, honako informazioa biltzea lortu zen:

- Nola lantzen da hezkidetza hezkuntza ez formalean? Zein toki hartzen du? Nola nahiko litzateke landu?

- Zeintzuk dira arlo honetan dauden erronkak? Zein proposamen egiten dira gaia jorratzeko?

Txosten baten bildu ziren ateratako erantzun, ideia eta proposamenak. Txostena jada diseinatuta eta inprimatuta dago eta beronen aurkezpena egitea faltako litzateke momentu honetan. Beraz, aurrera begira ondorioen zabalpena eta sozializazioa egin behar da.

Analisi honetatik abiatuz, aurten taldeei formaziorako tresnak ematea da asmoa, hori baita taldeekin partekatutako analisian ateratarako premia edo gabezia handiena.

Hezkidetzaren inguruko formakuntza saio edo ziklo bat da urte honetan egin nahi dena, zeinak bi atal izango zituen. Hezitzaileen formakuntzarako ekintza desberdinak sustatuko dira.

Asmoa, hezkidetzan adituak direnak gure espaziora gonbidatzea eta modu erakargarri batean astialdi taldeak bertara gonbidatzea izango da. Honen bitartez, dauden beharrei zein tresnekin aurre egin daitekeen aztertu eta horretarako zein metodo erabili behar diren konpartitu nahi dira.

Bi formakuntza saio hauek egun desberdinetan baina egitarau berberaren baitan eramango dira aurrera, gai desberdinak abordatuz eta elkarteen interesekoak eta beharren araberakoak direnak hautatuz.

Helburuak

HELBURU OROKORRA:

Hezkuntza ez formaleko agenteei hezkidetzaren lanketarako tresnak eskaintzea.

HELBURU ZEHATZAK:

- Hezkuntza ez formaleko gazteen premiei erantzun bat ematea.
- Honen baitan lan egin nahi duten elkarteekin sarea indartzea.
- EGK-k hezkidetzan egindako lana sozializatzea.

Garapena

EKINTZAK:

Formakuntza saioak eta aurkezpena diseinatu eta kudeatu.

"Haziak Astialdira" txostena aurkeztu.

Formakuntza saioak aurrera eraman.

Proiektu osoaren ebaluazioa egin eta etorkizunean sor daitezkeen lanketak pentsatu.

KRONOGRAMA:

URT	OTS	MAR	APIR	MAI	EKA	UZT	ABU	IRA	URR	AZA	ABE

Ebaluazioa

- Egindako txostenaren difusio maila eta hedapena.
- Lorturiko harreman berriak.
- Hezkidetzaren gainean egindako lanketak.

3.1.6 Ikus Gaitezen

2020an **#IkusGaitezen** proiektuarekin irekitako lan-ildoari jarraipena eman nahi zaio aurten. Horretarako, 2020an prestatutako ondorio txostenaren eta bideoen zabalpena egingo da lehenik. Proiektu honen helburua jada anitza den euskal gizartearen eraikuntzan gazte guztien ahotsak entzutera emateko aukera bermatzea izan zen. Jatorri ugariko gazteak zein espazio

partekatzen ditugun landu zen, eta espazio horietako partaidetza nolakoa den aztertu zen halaber. Mahaigaineratutako ondorio nagusietako bat izan zen gazte askorentzat espazio batzuetan partaidetza zaila dela bizitza duina izateko baldintza minimoak asetuta ez dauzkatenean partaidetzak lehentasuna galtzen baitu.

Espazio ugaritan elkarrekin egoten garela identifikatu zuten **#IkusGaitezen**-en parte hartutako gazteek, baina askotan espazio partekatu arren ez dela benetan bizikidetzarik ematen. Hori gertatzen dela identifikatu zen gehienbat hezkuntzan, enplegua eta etxebizitza lortzeko orduan. Bestalde, elkar ezagutzeko eta lasai hitz egiteko espazioen eskasia identifikatu zuten gazteek.

Hori dela eta, azken erronka honi aurre egiteko helburua du 2021ean EGK-k garatu nahi duen proiektua. Espazioen sorreraren beharrari heldu eta bi elkarretaratze antolatu nahi dira urtean zehar. Topaketa hauetan espazio seguru eta goxoa izatea bermatu nahi da, eta bertan jatorri desberdinetako gazteek elkarrekin etorkizunera begira hartu beharreko pausoak jorratzea da helburu.

Helburuak

HELBURU OROKORRA:
EAEn bizi diren jatorri desberdineko gazteek elkarrekin etorkizuna eraikitzeko espazioak sortzea.

HELBURU ZEHATZAK:

- 2020an egindako #IkusGaitezen proiektuan identifikatutako erronkei erantzunak proposatzea
- Jatorri anitzeko gazteek ahotsa izatea parte-hartze espazio hauetan
- Identifikatutako erronken aurrean baliabideak erraztea
- Gazte migratzaileen errealitatea lantzea.

Garapena

EKINTZAK:

2020an prestatutako ondorio txostenaren eta bideoen zabalpena.

2021ean garatuko diren bi elkarretaratzeen diseinua prestatzea.

Eragile eta gazteen saretzea egitea.

Lehen topaketa egitea.

Bigarren topaketa egitea.

Ondorioen jasotzea eta ebaluazioa egitea.

KRONOGRAMA:



Ebaluazioa

- Euren eskaera eta ardurak jasotzeko aukera ematea.
- Saioetako parte-hartze kuantitatibo eta kualitatiboa.
- Espazio honetatik aurrera begirako erronkak lantzeko tresnen diseinua.

3.2 HEZKUNTZA FORMALA

3.2.1 Hezkuntza Foroa

Hezkuntza formalaren arloan, EGKren diskurtsoa eta bidea osatzen lagunduko duten ikasle elkarte, kontseiluetako ordezkariekin eta maila indibidualean parte hartzen duten gazteekin batera eztabaidarako guneari aktibazio eta egonkortze bat ematea da asmoa. Hauekin batera hezkuntza arloko gaiak eztabaidatu eta elkarren arteko adostasunean oinarritutako proposamenak lantzeaz gain, hezkuntza arloko proiektuak zein dinamika zehatzak eraman nahi dira aurrera.

Hezkuntza lan-arlotik harremana eta elkarlana sortzeaz gain, elkargune horren bitartez hezkuntza arloko administrazioari proposamen zehatzak helaraztea da helburua gazteen egoeraren berri emateko eta dauden neurri zein araudiei ekarpenak egiteko.

Helburuak

HELBURU OROKORRA:

Bitartekari lana burutzea: ikasleen kezka eta beharrak proiektu zehatzen bitartez lantzea, gerora hezkuntza formaleko instituzio eta arduradunei lan horretan jasotako ondorioak helarazi eta proposamen zehatzak bideratzeko.

HELBURU ZEHATZAK:

- Hezkuntza formaleko elkarte eta eragileekin hezkuntza eztabaida gunea koordinatzea.
- Ikasleen arazoak eta kezkak jaso eta foroaren eztabaiden bitartez proposamen eta ekimenak bideratzea.
- Aurreko urtean emandako pausoetatik abiatuta taldearen definizioa eta honen eginkizunak parte-hartzaileen artean finkatzea.
- Foroak egonkortasun batekin lan egiten duela bermatzea.

Garapena

EKINTZAK:

Hezkuntza Foroa koordinatu eta bertako beharrei erantzun.

Ikasleen arazoak eta kezkak jaso eta foroaren eztabaiden bitartez proposamen eta ekimenak bideratu.

Foroaren egonkortasuna lortzeari begirako lanak egin.

Ikasleentzako formakuntza eta aholkularitzaren gaineko proposamenak helarazi.

Hezkuntza arloko eragileekin eta instituzioekin harremanak sendotu.

KRONOGRAMA:

URT	OTS	MAR	APIR	MAI	EKA	UZT	ABU	IRA	URR	AZA	ABE

- Proposatutako proiektuen burutzea eta proposamenen zenbatekoa.
- Foroaren zabalpena.
- Espazioaren funtzionamendua: bilera kantitatea eta kalitatea.
- Kidegoaren proaktibitatea.
- Aldarrikapen eta diskurtsoen eragina (jendarte eta komunikabidetan).
- Administrazioarekin izandako bilerak.

3.2.2 "Gazteak eta garraioa" egoerarenanalisia

Aurreko urteetako informazio bilketetatik abiatuta, garraioaren egoeraren gainean iritzi trukaketa bat eman nahi da aurten ere. Gazteen premia eta behar garrantzitsu gisa identifikatu izan da aspektu hau aurreko urteetan zehar eta analisiko ibilbide horrekin jarraitu nahi da.

Gai honekiko gazteen iritzia zein ahotsa entzun dadin ahalbidetuko da zentzu honetan. Horretarako, ondorio jasotze bat burutuko da eta balorazioak administrazio zein elkarte desberdinetara hurbiltzeko unea edo tartea ere izango da. Hau bilera desberdinen bitartez eramango da aurrera. Horretarako, EGKren diskurtsoa osatzen lagunduko duten ikasle elkarteekin, kontseiluetako ordezkariekin eta maila indibidualean parte hartzen duten gazteekin eztabaidarako guneak eraikiko dira.

Gainera, honetarako aliantza edota eremu berriak identifikatu nahi dira, garraioaren gaia lantzen duten agenteekin harremanak indartuz hain zuzen ere, bai maila instituzionalean edota administrazioei dagokienez baina baita gazte eta ikasle eremu berriak arakatuz.

Alde batetik, unibertsitate mailan lan egiten duten taldeekin aurrera eraman nahi da informazioaren galdeketa hau. Izan ere, hezkuntza lan-arlotik sor daitezkeen harreman berriei begira jarri eta horretarako baliatu nahi da lanketa hau, bertan integratuz adibidez Lanbide Heziketan dabiltzan gazteen iritzia eta behar edo errealitatea. Honen bitartez, hezkuntza arloko gazteekin sarea sortzen jarraitu eta indartu nahi da, horren bidez hezkuntza formalean EGK-k duen eragina eta ekarpen maila indartuz.

Helburuak

HELBURU OROKORRA:

Jaso eta bildutako datuei jarraiki, erabiltzaileen ahotsak entzunaraztea.

HELBURU ZEHATZAK:

- Ikasleen iritziak partekatzea eta egoerari buruzko proposamen zehatzak administrazioari heltzea.
- Aurretik gai honekin emandako lanketen edukiari jarraipena ematea eta informazio eguneratuaren zein hausnarketa partekatuaren analisi bat egitea.
- Ikasleekin eta garraioaren eremuarekin zerikusia duten taldeekin harreman berriak sortu eta sarea handitu zein indartzea.

Garapena

EKINTZAK:

Partekatze ariketa edo lana burutzea.

KRONOGRAMA:

URT	OTS	MAR	APIR	MAI	EKA	UZT	ABU	IRA	URR	AZA	ABE

Ebaluazioa

- Hedapena.
- Jasotako erantzun kopurua.
- Jasotako informazioa maila kualitatiboan.
- Informazioaren eta analisiaren irismen maila.

3.2.3 Hezkuntza eragileak

Hezkuntza, EGK-ko lan-arlo bat den heinean, eremu honetan mugitzen da naturalki lan egiten. Hezkuntza sistema osatzen duten egitura, instituzio eta arduradunekin harremana mantentzea egunerokoan presente dago beraz. Honekin batera, EGK ezagutzera emateko modu bat ere da harreman sare hau, arloko agente ezberdinen artean elkarlana eman dadin batez ere.

Helburuak

HELBURU OROKORRA:

Hezkuntza sistema osatzen duten egitura, instituzio eta arduradunekin harremana sortzea eta EGK hezkuntza esparruan ezagutzera ematea.

Garapena

EKINTZAK:

Euskadiko Eskola Kontseiluko deialdietan parte hartu eta jasotako dokumentuen ekarpenak burutu.

KRONOGRAMA:

URT	OTS	MAR	APIR	MAI	EKA	UZT	ABU	IRA	URR	AZA	ABE

Ebaluazioa

- Bileretan parte hartu izana.
- Egindako ekarpen kopurua.

3.2.4 Eskola Kontseilua

Aurten ere, EGK-k, Euskadiko Eskola Kontseiluan, unibertsitatekoa ez den irakaskuntzako programazio orokorrarekin zerikusirik duten giza eragileek parte hartzeko organo gorenean,

parte hartuko du. Bertan, EAE mailan irakaskuntza garatzen duten arau eta irakaskuntzaren egoeraren gaineko txosten orokorrei ekarpenak egiten zaizkio betiere gazteen iritzia kontuan izanda.

Helburuak

HELBURU OROKORRA:

Euskadiko Eskola Kontseiluko bileretan parte hartzea.

HELBURU ZEHATZA:

- Eskola Kontseiluko eztabaida eta dokumentuei ekarpenak egitea gazteen ahotsa helaraziz.

Garapena

EKINTZAK:

Euskadiko Eskola Kontseiluko deialdietan parte hartu eta jasotako dokumentuen ekarpenak burutu.

KRONOGRAMA:

URT	OTS	MAR	APIR	MAI	EKA	UZT	ABU	IRA	URR	AZA	ABE

Ebaluazioa

- Bileretan parte hartu izana.
- Egindako ekarpen kopurua.

3.3. HEZKUNTZA: OROKORRA

3.3.1 Hezkuntzako data garrantzitsuak

Proiektu hau, egun zehatzak eta hauen esanahia balioan jartzean datza.

Honakoak dira momentuz identifikatuta eta agendan markatuta dauden egun zehatzak:

- Azaroak 17: Ikasleen Nazioarteko Eguna.
- Abenduak 3: Aniztasun Funtzionalaren eta Euskararen Eguna.
- Abenduak 5: Boluntariotzaren Nazioarteko Eguna.

Hauetan, lanketa berezitu bat egingo da eta tarte bat eskainiko zaie, bai barne mailan eta baita kalera begira edota publikoki ere.

Helburuak

HELBURU OROKORRA:

Agendan adierazitako nazioarteko egunei buruz hezkuntzaren arloan dagoen diskurtsoa plazaratzea eta zabaltzea.

HELBURU ZEHATZA:

- Nazioarteko egunen garrantzia gizarteratzea.

Garapena

EKINTZAK:

Hezkuntzako data garrantzitsuetan baliatzeko diskurtsoa sortu.

KRONOGRAMA:

URT	OTS	MAR	APIR	MAI	EKA	UZT	ABU	IRA	URR	AZA	ABE

Ebaluazioa

- Irismen maila.
- Gazteen inplikazioa egun hauetako diskurtsoaren garapenean.

- Daten sozializazioak izandako oihartzuna eta erantzuna.

3.3.2 Administrazioekin koordinatu

Eguneroko gaiek eskatuta administrazioekin koordinazio lanak burutu: lan-saio eta bilerak, telefono deiak... Hezkuntza lan-arloari dagokionez, Eusko Jaurlaritza eta EAEko aldundiak izango dira hartzaileak.

Helburuak

HELBURU OROKORRA:

Administrazioekin koordinazio egoki eta egonkorra bideratu.

Garapena

EKINTZAK:

Eusko Jaurlaritza eta Aldundiekin batera koordinazio lanak burutu.

KRONOGRAMA:

URT	OTS	MAR	APIR	MAI	EKA	UZT	ABU	IRA	URR	AZA	ABE

Ebaluazioa

- Urtean zehar informazio trukaketa burutzea.
- Elkarren arteko harremanaren ondoriozko koordinazio hobetzea.

3.3.3 Egunerokotasuna

Lan-arlo bakoitzaren lan zehatzetatik bereiz, teknikariek egoitzaren kudeaketa lanetan lagundu behar dute: telefonoari arreta eta deribazioa; hurbiltzen denari arreta eta deribazio zerbitzuak

eskaini; materiala, dokumentazioa, eskutitzak, e-mailak ... jaso artxibatu eta deribatu; oinarrizko bulego materialaren egoera aztertu eta erosketa eskaerak bideratu; informatika zerbitzuaren mantenuan lagundu; agenda egunean eraman eta koordinatu ...

Helburuak

HELBURU OROKORRA:

- Egoitzetako lan teknikoak eta kudeaketa zereginak aurrera eraman.

Garapena

EKINTZAK:

Egunerokotasuneko lanak

KRONOGRAMA:

URT	OTS	MAR	APIR	MAI	EKA	UZT	ABU	IRA	URR	AZA	ABE

Ebaluazioa

- Hobekuntzarako proposamenak jaso.

4.PARTAIDETZA

Partaidetza lan-arloa 2013ko uztailean sortu zen, EGK-ko Batzar Orokorrean onartutako "Indartzen" plan estrategikoan agindutakoa beteta.

EGK gazteriaren eta administrazio publikoen arteko zubia izaki, partaidetza lan-arloaren helburua politika publikoen lanketan gazteen partaidetza sustatzea da. Horretarako, planteatutako ekimenen bitartez partaidetza modu praktikoan sustatzeaz gain, gazteriaren partaidetzaren errealitatea jaso, horren gaineko hausnarketa egin eta hobekuntzak proposatuko dira.

Arlo honek lan teorikoa eta praktikoa uztartzen ditu; beraz, lana bulegotik kanpo egingo da askotan.

4.1 Aholkularitza

Partaidetza teknikariaren eguneroko lanetariko bat da; gazteek zein elkarteek aurkeztutako kexak, proposamenak eta zalantzak entzun eta irtenbideak proposatzea.

Aldi berean, garrantzitsua da, ahal den heinean, sare ezberdinetan parte hartzea; horietan aurkeztutako ideiak jasotzeko zein EGKren ideiak helarazteko.Pandemiaren egoerak gazte askoren bizi baldintzak nabarmen aldatu dituen honetan, pandemiaren eraginei aurre egiteko

aholkularitza zerbitzu berezitua ere emango da aurrera (administrazioak ezarritako neurrien inguruko informazio osatua, lan edo dirulaguntza deialdien inguruko informazioa ...).

2020an pandemia lehertu zenean egin zen bezalaxe, aurten ere krisi honen aurrean elkarteen egoera zein den hobeto ezagutzeko zaintzan oinarrituriko bilera, dei eta harremanetarako bide ezberdinak bilatuko dira. Pasaden urtetik ona elkarteen egoera hobetu edo okertu egin den identifikatuko da horrela, bide berean laguntza eskainiz eta sortu diren arazo berriak identifikatuz.

Helburuak

HELBURU OROKORRA:

Gazteek zein elkarteek aurkeztutako kexak, proposamenak eta zalantzak entzun eta irtenbideak proposatzea.

HELBURU ZEHATZAK:

- Sare ezberdinetan parte hartzea; horietan aurkeztutako ideiak jasotzeko zein EGKren ideiak helarazteko.
- Elkarteek pandemiaren aurrean bizi duten egoeraren berri izatea.
- Pandemiaren eraginez elkarteek dituzten arazo edo beharren aurrean laguntza eskaintzea identifikatu.

Garapena

EKINTZAK:

Aholkulari lana.

KRONOGRAMA:

URT	OTS	MAR	APIR	MAI	EKA	UZT	ABU	IRA	URR	AZA	ABE

Ebaluazioa

- Ebaluazio irizpide nagusiak egindako aholkularitza zerbitzuen kopurua eta berauen edukia izango dira. EGKren parte ez diren elkarte eta eragileekin egindako kontaktua eta harreman horien bilakaera ere baloratuko da.

4.2 EGKren 35. urteurrena

EGK-k 35. Urteurrena ospatzeko aurrera eramango diren ekintza desberdinak burutzen lagundu. Partaidetza arlotik, 35 urte hauetan kontseiluaren parte izan diren elkarteekin kontseiluak izandako bilakaera eta etorkizunaren gainean hausnartzeko bideo bat ere egingo da.

Helburuak

HELBURU OROKORRA:
EGKren urteurrenari oihartzuna emateaz gain elkarteak urteurrenaren parte direla sentiaraztea.

HELBURU ZEHATZAK

- Urte hauetan elkarteek EGKn eta EGKren bidez buruturiko lana ezagutaraztea.
- EGKaren barneko aniztasuna balorean jartzea.
- EGKren etorkizunaren inguruko hausnarketa bultatzea.

Garapena

EKINTZAK:

Urteurrenaren inguruko lan banaketa zehaztu

EGKren bilakaera bildu nahi duen bideoaren gidoia eta partaideak zehaztu

Urteurrenaren inguruko bideoa eta ekimen handia prestatu

Urteurrena ospatzeko ekimen handia burutu

KRONOGRAMA:

URT	OTS	MAR	APIR	MAI	EKA	UZT	ABU	IRA	URR	AZA	ABE

Ebaluazioa

- Bideoak sareetan EGK-ko elkarteen artean eta orokorrean Euskadiko gazteriaren artean izan duen inpaktua neurtu beharko da.
- Bideoa zein urteurrenaren inguruan antolatuko diren ekimenen inguruan elkarteen artean sortzen diren harreman edo sinergiak era kontuan izan beharko dira.
- Urteurrena ospatzeko ekimen handiak EGK-ko elkarteengan eta komunikabideetan izango duen oihartzuna ere ebaluatu beharrekoa izango da.

4.3 Partaidetza Plana

2020an Berdintasun Planarekin egin bezala, partaidetza arlotik 2021. Urtea probestu nahi da benetan partaidetza arloan EGK-k hurrengo urteetan izango duen ildo estrategia finkatu eta sortzen ari diren erronken aurrena partaidetza sustatzeko plan sendo bat egikaritzeko.

Norabide horretan plan horrek oso kontuan izan beharko ditu boluntariotza eta partaidetza arloan ematen ari diren aldaketak (Pandemiaren eragina, digitalizazioa, parte-hartzeko modu edo metodologia berriak...). Onartuko den Gazteria Lege berriaren oinarriak kontuan izaki egin beharko da azterketa lan guzti hau.

Helburuak

HELBURU OROKORRA:

EGK-k egungo gazteen behar eta ohituretara moldatuko den partaidetza estrategia bat egikaritzea.

HELBURU ZEHATZAK:

- EGK-k parte-hartzeko zenbait molde berri bere egitea.
- EGKren barneko partaidetzan sakontzeko tresna bat sortzea.
- EGKn partaidetza are gehiago sustatzeko marko bat eratzea.
- Partaidetza modu inklusibo eta parekidean sustatzeko neurriak ezartzen jarraitzea.

Garapena

EKINTZAK:

Planaren neurrien garapena.

Planaren neurrien ebaluazioa.

Plan berria diseinatu eta garatu.

KRONOGRAMA:

URT	OTS	MAR	APIR	MAI	EKA	UZT	ABU	IRA	URR	AZA	ABE

Ebaluazioa

- Aurtengoa, plana sortzeko urtea izaki, ebaluazio irizpideak ezarri ostean 2022. Urtetik aurrera egongo da benetan planaren ebaluazio egoki bat egiteko aukera. Bertan ezarri tako neurri eta proposamenen eraginkortasuna eta eragina ebaluatuz.

4.4 EGK: Sarea handitzen

EGKren barneko elkarteen harremana zaindu, indartu eta berauen partaidetza sustatzeko nahian, EGK-k lantzen dituen lan-arlo desberdinekin zerikusia duten eta gazteengan eragina duten zenbait aspekturen gaineko formakuntzak eskaintzea da asmoa.

Honekin EGK elkartetatik eta berauen beharretatik inoiz baino gertuago dagoela adierazteko ariketa bat egingo da partaidetza arlotik, elkarteei asko dagoela eskaintzeko irudikatuz.

Helburuak

HELBURU OROKORRA:

EGK-ko elkarteek dituzten beharrei aurre egitea.

HELBURU ZEHATZAK:

- Elkarteei arlo desberdinetan ahalduntzen lagundu.
- Gazte eta elkarteei formakuntzarako espazio egokiak eskaini.
- Elkartegintzan sakondu.

Garapena

EKINTZAK:

Formakuntza desberdinen inguruan informazioa bildu

Elkarteen nahi eta beharrak identifikatu

Formakuntzak burutu

Burututako formakuntzen iritzia eskatu

KRONOGRAMA:

URT	OTS	MAR	APIR	MAI	EKA	UZT	ABU	IRA	URR	AZA	ABE

Ebaluazioa

- Formakuntzak elkarteen artean izan duen harrera identifikatzea.
- Formakuntzen kalitatearen inguruko ebaluazioa ere egin beharko da.

4.5 Lantaldeen koordinazioa

EGKren oinarri berezitu diren lantaldeek bere jardunean dihardute. Emantzipa...Zer?, Gaur8 edo hezkuntza arloko foro desberdinak tartean. Berauetan partaidetza handiagotzeko eta batez ere arlo bakoitzean existitzen diren hutsuneak betetzeko laguntza berezitua eskainiko da.

Helburuak

HELBURU OROKORRA:

EGK-ko lan-arloetan partaidetza gehiago sustatzeko lan egin eta bertako lantaldeak elikatzen jarraitu.

HELBURU ZEHATZAK:

- Beste lan-arloak indartu.
- Lan-arloen arteko sinergiak bilatu.
- EGK-ko elkarteak lantaldeetara erakarri.

Garapena

EKINTZAK:

Lan-arloekin koordinazio eta estrategia bilerak.

KRONOGRAMA:

URT	OTS	MAR	APIR	MAI	EKA	UZT	ABU	IRA	URR	AZA	ABE

Ebaluazioa

- Lan-arlo zein lantalde bakoitzaren dinamismoa urte amaieran handitu den edo ez aztertu beharko da.

4.6 Material eta gelen lagapen zerbitzua eta kanpaina

Material eta gelen mailegua EGK-k gazteei eta gazteen elkarteei eskaintzen dien zerbitzuetako bat da.

Eskaerak jasotakoan, ezarritako prozedura estandarizatua jarraitu behar da materiala zein gela lagatzeko. Partaidetza teknikariaren lana da maileguen jarraipena egitea eta material eta gelen erabilera sustatzea, eta berori baliatu EGK eta zerbitzuaren erabiltzaileen arteko harremana indartu eta sakontzeko.

Zentzu honetan, aurten zerbitzua ezagutzera emateko kanpaina bat ere burutuko da sare sozialen bidez Komunikazio lan-arloarekin batera.

Helburuak

HELBURU OROKORRA:

Gazteei eta gazteen elkarteei beraien ekimenetarako material desberdinak eta espazioak eskaintzea gazteriaren artea are gehiago zabaltzea.

HELBURU ZEHATZAK:

- EGK eta zerbitzuaren erabiltzaileen arteko harremana indartu eta sakontzea.
- EGKren material eta bulegoen erabilera gazte elkarteen artean geroz eta gehiago sustatzea.
- Zerbitzuaren igoera 3 lurralde historikoetan burutzea.
- Kanpainarekin gazteriaren espektro berrietara ailegatzea.

Garapena

EKINTZAK:

Lagapen eskariak daudenean.

Kanpaina garatu.

Kanpaina aurrera eraman

KRONOGRAMA:



Ebaluzioa

- Utzitako material eta baliabideen egoeraren gaineko jarraipena egitea. Bestetik, urtean zehar egindako lagapen kopurua aurreko urteetakoekin alderatzea.
- Kanpainaren eragina baloratu beharko da harreman eta zerbitzuen arabera.

4.7 Euskadiko Gazteok Lankidetzan

Aurten ere, partaidetza teknikariak **Euskadiko Gazteak Lankidetzan** programan parte hartuko du eta beronen antolaketan lagunduko du. Pandemiaren ondorioz, ikusteke dago oraindik zein izango den proiektuaren aurtengo ardatza, COVID-19aren eraginez ezinezkoa izango baita garapen bidean dauden herrialde askotara Euskadiko gazte boluntarioak bidaltzea. Hau horrela, ez dago argi oraindik, zein izango den EGKren papera prozesuan zehar.

Helburuak

HELBURU OROKORRA:

Kooperazio proiektuetan parte hartuko duten gazteak hautatzea.

HELBURU ZEHATZAK:

- EGKren irismena handitzea.
- Profil anitzeko gazteak ezagutu eta interesa agertu dutenekin harremanak finkatzea.
- Euskadiko gazteriaren partaidetza sustatzea.
- Lankidetzaren baloreak Euskadiko gazteen artean sustatzea.

Garapena

EKINTZAK:

Lehen hautaketa egiteko jardunaldia.

Hautaketa jardunaldiak.

Informazio jardunaldiak.

Ebaluazio jardunaldiak.

KRONOGRAMA:

URT	OTS	MAR	APIR	MAI	EKA	UZT	ABU	IRA	URR	AZA	ABE

Ebaluazioa

- Eusko Jaurlaritzak proposatutako irizpideen araberako balorazioa egingo da. Bestetik gazteekin edukitako harremanen inguruko irakurketa egingo da.

4.8 Gazteriaren Foru Transpirenaikoa

Pirinioetako Lan Elkartea osatzen duten (PLE) lurraldeetako gobernuek, tartean Eusko Jaurlaritzak. Erasmus Plus programaren laguntzaz, Gazteriaren Foro Transpirenaikoa jarri dute martxan. Lurralde horietako gazteek elkar ezagutu eta bizi dituzten problematika eta bizibaldintzen inguruan hausnartzeko espazio bat sortzea da asmoa.

Foro horretan EAE, Nafarroa, Aragoi, Katalunia, Nouvelle-Aquitaine eta Okzitaniako gazteek hartuko dute parte. Beraien bizibaldintzak hobetu eta hizkuntzagutxituedomugikortasunabezalakogaienaurreanproposamenakegitensaiatukodira.

Helburuak

HELBURU OROKORRA:

Pirinioetako Lan elkartea (PLE) osatzen duten lurraldeetako gazteek hausnarketarako espazio bat eraikitzea.

HELBURU ZEHATZAK:

- Lurralde desberdinetako gazteek problematikak elkarbanatzea.
- Lurralde ezberdinetako gazteen arteko saretzea sustatzea.
- Aspektu komunen inguruan hausnartu eta berauek indartzea (euskara, mugikortasuna...).
- Errealitate pirenaikoa gizarteratzea gazteen ikuspegitik.

Garapena

EKINTZAK:

EAEko gazte taldea aukeratu

Taldearen egituraketa eta funtzionamendua zehaztu

Ekimen desberdinak burutu

Talde guztien foro transpirenaiko orokorra ospatu Jakan

KRONOGRAMA:



Ebaluazioa

- Taldearen dinamismoa ebaluatu beharko da.
- Foroak proposamenak eta ekimenak aurrera eramateko izan duen baliagarritasuna ere baloratu beharko da.

4.9 Ikus Gaitezen

2020an **#IkusGaitezen** proiektuarekin irekitako lan-ildoari jarraipena eman nahi zaio aurten. Horretarako, 2020an prestatutako ondorio txostenaren eta bideoen zabalpena egingo da lehenik. Proiektu honen helburua jada anitza den euskal gizartearen eraikuntzan gazte guztien ahotsak entzutera emateko aukera bermatzea izan zen. Jatorri ugariko gazteak zein espazio partekatzen ditugun landu zen, eta espazio horietako partaidetza nolakoa den aztertu zen halaber. Mahaigaineratutako ondorio nagusietako bat izan zen gazte askorentzat espazio batzuetan parte hartzea zaila dela bizitza duina izateko baldintza minimoak asetuta ez dauzkatenean partaidetzak lehentasuna galtzen baitu.

Espazio ugaritan elkarrekin egoten garela identifikatu zuten **#IkusGaitezen**-en parte hartutako gazteek, baina askotan espazio partekatu arren ez dela benetan bizikidetzarik ematen. Hori gertatzen dela identifikatu zen gehienbat hezkuntzan, enplegua eta etxebizitza lortzeko orduan. Bestalde, elkar ezagutzeko eta lasai hitz egiteko espazioen eskasia identifikatu zuten gazteek.

Hori dela eta, azken erronka honi aurre egiteko helburua du 2021ean EGK-k garatu nahi duen proiektua. Espazioen sorreraren beharrari heldu eta bi elkarretaratze antolatu nahi dira urtean zehar. Topaketa hauetan espazio seguru eta goxoa izatea bermatu nahi da, eta bertan jatorri desberdinetako gazteek elkarrekin etorkizunera begira hartu beharreko pausoak jorratzea da helburu.

Helburuak

HELBURU OROKORRA:
EAEn bizi diren jatorri desberdineko gazteek elkarrekin etorkizuna eraikitzeko espazioak sortzea.

HELBURU ZEHATZAK:

- 2020an egindako #IkusGaitezen proiektuan identifikatutako erronkei erantzunak proposatzea.
- Jatorri anitzeko gazteek ahotsa izatea parte-hartze espazio hauetan.
- Identifikatutako erronken aurrean baliabideak erraztea.

- Gazte migratzaileen errealitatea lantzea.

Garapena

EKINTZAK:

- 2020an prestatutako ondorio txostenaren eta bideoen zabalpena.
- 2021ean garatuko diren bi elkarretaratzeen diseinua prestatzea.
- Eragile eta gazteen saretzea egitea.
- Lehen topaketa egitea.
- Bigarren topaketa egitea.
- Ondorioen bilketa eta ebaluazioa egitea.

KRONOGRAMA:



Ebaluazioa

- Euren eskaera eta ardurak jasotzeko aukera ematea.
- Saioetako parte-hartze kuantitatibo eta kualitatiboa.

- Espazio honetatik aurrera begirako erronkak lantzeko tresnen diseinua.

4.10 Gizarte Aldaketarako Herritartasuna

Partaidetza teknikariak, Deustuko Unibertsitateko **Gizarte Aldaketarako Herritartasuna** irakasgaian kolaboratzeko aukera izango du Alboan elkarteko kideekin batera. Teknikariaren ardura irakasgaian zehar ikasleak laguntzea eta aholkatzea izango da. Honen bidez, herritarren partaidetzaren gaineko lanketak eta hausnarketak ikasleekin lantzeko espazio bat eraikiko da.

Helburuak

HELBURU OROKORRA:

Deustuko Unibertsitateko ikasleak aholkatzea herritarren partaidetzaren gaineko eragin plan txiki bat diseinatu, burutu eta ebaluatzen.

HELBURU ZEHATZAK:

- EGKren irismena handitzea.
- Euskadiko gazteriaren parte-hartzea sustatzea.
- EGKren lana unibertsitatean ikusgarri egitea.

Garapena

EKINTZAK:

Irakasgaian zehar, ikasle taldeekin zein irakaslearekin bildu.

KRONOGRAMA:

URT	OTS	MAR	APIR	MAI	EKA	UZT	ABU	IRA	URR	AZA	ABE

Ebaluazioa

- Proiektuaren ebaluazio irizpideak irakasgaian ezarrita daudenak izango dira. Bestetik proiektuaren balorazio orokor bat egingo da irakasle zein ikasleekin.

4.11 Egunerokoa

EGK-ko lan-arlo guztiek ezinbestekoak dituzte barneko nahiz kanpo koordinaziorako bilerak. Baita urtean zehar ager daitezkeen bestelako proiektuetan parte-hartzeko aukera ere. Gainera, lan-arlo honen kasuan, bere zeharkakotasuna dela eta, EGK-ko gainerako lan-arloekin izan beharreko koordinazioa ia etengabea da, baita kanpoko elkarte, eragile eta administrazioekin.

Helburuak

HELBURU OROKORRA:

EGK-ko beste lan arloekin barne koordinazioa eta kanpo eragileekin harreman berriak eraikitzea.

HELBURU ZEHATZAK:

- Egoitzetako kudeaketa lanak egin.
- Beste lan-arloei gazteen parte-hartzearekin lagundu.
- Urteko plangintza eta memoria egin.
- Hedabideetan agertu hala eskatzen dutenean.
- EGKren barne antolakuntzarako bileratan parte hartu

Garapena

EKINTZAK:

Urteko plangintza prestatu.

Bilerak.

Memoria egin.

KRONOGRAMA:

URT	OTS	MAR	APIR	MAI	EKA	UZT	ABU	IRA	URR	AZA	ABE

Ebaluazioa

- Urte osoko plangintzaren jarraipena eta barne komunikazioa ebaluatuko da.

5. BAKEA ETA BIZIKIDETZA

Bake eta bizikidetza lan-arloaren 2021eko plangintza hiru zutabetan oinarrituko da. Proiektu guztiek izango dute lotura ondorengo hiru arlotakoren batekin gutxienez: Giza Eskubideak, memoria eta bizikidetza.

Horretarako, aurreko urteetan hasitako proiektu batzuek jarraipena izango dute (**Etikasi**, bake lantaldea zein **Ikus Gaitezen** dira horren adibide). Beste batzuk lehen aldiz landuko ditu bake eta bizikidetza lan-arloak, Euskadiko gazteek problematika desberdinei buruz dituzten hausnarketak eta eskaerak jasotzeko asmoarekin betiere. Bake positiboan eta bizikidetzan oinarritutako gizarte bat eraikitzeak iragana begiratuz etorkizunari bidea egitea eskatzen du. Horretarako EAEko gazteek dutena entzutea beharrezkoa da, gazte elkarte zein indibidualki EGKri helarazten dizkieten eskaerak batu eta kanalizatuz.

2021eko helburu orokor bezala pandemia egoerara moldatuz gazteei ahotsa ematen jarraitzea da; Giza Eskubideei, memoriari eta bizikidetzari buruz hitz egin eta lan egiteko espazioak sortuz.

5.1 Etikasi

Bidaia hezigarrien bidez Euskadiko gazteek etika eta Giza Eskubideei buruz hausnartzeko proiektua da **Etikasi**. Jatorrian, Giza eskubideen urraketa sufritu duten beste lurralde batzuetara bidaia hezigarriak eginez etikari eta giza eskubideei buruzko hausnarketa eta ikasketa sustatzea zen programaren helburua. Tamalez, 2021eko**Etikasi** ezingo da jatorrian bezala Auschwitz eta Ipar Irlandara joateko bidaiekin garatu. COVID-19ak proiektuaren diseinua aldatu eta egokitzea eskatzen du, ahal delarik estatutik atera gabe (bidaiatzeko erraztasun gehiago izateko).

Horretarako 2021erako proposamena unibertsitate zein lanbide heziketako ikasleei bakarrik bideratua izango da. Bi modalitate egitea proposatuko da. Lehen proposamena egun bakarreko **Etikasi** izango da, EAE barruko eta indarkeriak markatutako leku bat bisitatuko dute gaian aditua den pertsonekin hitz egiteko aukerarekin. Bigarren aukera asteburu osoko **Etikasi** bat izango da, ostiral arratsaldean hasi eta igandera arte EAE edo Nafarroako leku esanguratsu batzuk ezagutzera joateko aukera emanez.

Etikasiko helburua mantenduz, bidaietan joan aurretik ikasleek formakuntza jasoko dute, eta itzuli ostean ere ondorioak hausnartzeko saioa ere egingo dute.

Helburuak

HELBURU OROKORRA:
Etikasi proiektua aurrera eramatea COVID-19aren aurkako neurriak kontuan hartuz.

HELBURU ZEHATZAK:
- Proiektuaren diseinua egokitu.

- Bidaiak egiteko lekuak aukeratu eta bertan egiteko programa garatu.
- Gazteen parte hartzea sustatu
- Formakuntza eta ebaluazioa antolatu.

Garapena

EKINTZAK:

Etikasiren diseinua pandemiaren baldintzetara egokitu.

Izen-emate deialdia ireki.

Hautatze prozesua aurrera eraman.

Bidaiaren aurreko formakuntza eman.

Bidaiak egin.

Bidaiaren osteko formakuntza eta itxiera egin.

KRONOGRAMA:



Ebaluazioa

- Gazteen izen-ematea sustatzea.
- Pandemiaren egoera mantendu arren proiektua aurrera eramatea.
- Etikasi Estatu barruan garatzeko proposamenen diseinua egitea.
- Formakuntzak egokitzea.

5.2 Ikus Gaitezen

2020an **#IkusGaitezen** proiektuarekin irekitako lan-ildoari jarraipena eman nahi zaio aurten. Horretarako, 2020an prestatutako ondorio txostenaren eta bideoen zabalpena egingo da legenik. Proiektu honen helburua jada anitza den euskal gizartearen eraikuntzan gazte guztien ahotsak entzutera emateko aukera bermatzea izan zen. Jatorri ugariko gazteak zein espazio partekatzen ditugun landu zen, eta espazio horietako partaidetza nolakoa den aztertu zen halaber. Mahaigaineratutako ondorio nagusietako bat izan zen gazte askorentzat espazio batzuetan parte hartzea zaila dela bizitza duina izateko baldintza minimoak asetuta ez dauzkatenean partaidetzak lehentasuna galtzen baitu.

Espazio ugaritan elkarrekin egoten garela identifikatu zuten **#IkusGaitezen**-en parte hartutako gazteek, baina askotan espazio partekatu arren ez dela benetan bizikidetzarik ematen.

Hori gertatzen dela identifikatu zen gehienbat hezkuntzan, enplegua eta etxebizitza lortzeko orduan. Bestalde, elkar ezagutzeko eta lasai hitz egiteko espazioen eskasia identifikatu zuten gazteek.

Hori dela eta, azken erronka honi aurre egiteko helburua du 2021ean EGK-k garatu nahi duen proiektua. Espazioen sorreraren beharrari heldu eta bi elkarretaratze antolatu nahi dira urtean zehar. Topaketa hauetan espazio seguru eta goxoa izatea bermatu nahi da, eta bertan jatorri desberdinetako gazteek elkarrekin etorkizunera begira hartu beharreko pausoak jorratzea da helburu.

Helburuak

<u>HELBURU OROKORRA:</u>

EAEn bizi diren jatorri desberdineko gazteek elkarrekin etorkizuna eraikitzeko espazioak sortzea.

HELBURU ZEHATZAK:

- 2020an egindako #IkusGaitezen proiektuan identifikatutako erronkei erantzunak proposatzea.
- Jatorri anitzeko gazteek ahotsa izatea parte-hartze espazio hauetan.
- Identifikatutako erronken aurrean baliabideak erraztea.
- Gazte migratzaileen errealitatea lantzea.

Garapena

EKINTZAK:

- 2020an prestatutako ondorio txostenaren eta bideoen zabalpena.
- 2021ean garatuko diren bi elkarretaratzeen diseinua prestatzea.
- Eragile eta gazteen saretzea egitea.
- Lehen topaketa egitea.
- Bigarren topaketa egitea.
- Ondorioen jasotzea eta ebaluazioa egitea.

KRONOGRAMA:



Ebaluazioa

- Haien eskaera eta ardurak jasotzeko aukera ematea.
- Saioetako parte-hartze kuantitatibo eta kualitatiboa.
- Espazio honetatik aurrera begirako erronkak lantzeko tresnen diseinua.

5.3 Bake eta bizikidetza lantaldea

Aurreko urteetan zehar sortutako lantaldeari jarraipena eta zabalkundea egiteko deialdia zabalduko da. Orain arte egin den bezala, urte honetan ere Bizikidetzaren eta Giza Eskubideen Planaren arabera, egungo euskal gizartean azaleratuz doazen erronka berriak landuko dira lantaldean. 2021eko helburu nagusietako bat izango da bereziki memoriaren eta Giza Eskubideen gaiak jorratzea, betiere ahaztu gabe lantaldea parte hartzen duten gazteek proposatu ditzaketen gaiak.

Helburuak

HELBURU OROKORRA:
Lantaldearen parte-hartzea kuantitatiboki eta kualitatiboki kontuan hartzea.

HELBURU ZEHATZAK:

- Memoriarekin lotutako gaiak lantzea.
- Giza Eskubideekin lotura duten bilerak egitea.

Garapena

EKINTZAK:

Lantaldearekin bilerak egitea.

Lantaldearen koordinazioa.

Urtearen ebaluazioa egitea.

KRONOGRAMA:

URT	OTS	MAR	APIR	MAI	EKA	UZT	ABU	IRA	URR	AZA	ABE

Ebaluazioa

- Lantaldeak jarraikortasuna izatea.
- Landutako gaien kantitateaz gain kalitatea bermatzea.
- Bai memoriaren eta baita Giza Eskubideen gaietan gutxienez 2 saio egitea bakoitza jorratzeko.

5.4 Zurrumurruen Aurkako Sarearekin elkarlana

2019an Gasteizeko Zurrumurruen Aurkako Sarearekin harremana hasi zuen EGK-k, Migratzaileei Buruzko Aurreiritziei Planto! proiektua diseinatu eta garatzeko orduan. Orduz geroztik harreman estua izan du EGK-k Euskadiko hainbat udalek eta Zurrumurruen Aurkako Sareak (ZAS) elkarlanean antolatutako ekintza zein bileratan. Sareek antolatutako ekintzak euskal gazteengana helaraztea izan da helburu nagusienetako bat orain arte, zubi lana egitea.

2021ean besta pauso bat eman nahi du EGK-k, eta orain arte kanpora begira egindako elkarlan hori barnera ekarri nahi du. Zurrumurruen Aurkako estrategia EGKra gerturatu nahi da, lehenik eta behin teknikari zein Batzorde Iraunkorreko ordezkariekin landuz. Honek EGK zurrumurruen aurkako agente bihurtzea ahalbidetu dezake etorkizunera begira, kulturartekotasunean oinarritzen den gizarte baten eraikuntzan gehiago laguntzeko.

Helburuak

HELBURU OROKORRA:
Zurrumurruen Aurkako Sarearen lana EGK barnera ekartzea.

HELBURU ZEHATZAK:
- Batzorde lraunkorrarekin eta teknikariekin formakuntza bat egitea.
- ZASen estrategia EGKren egunerokoan txertatzea.
- EGK zurrumurruen aurkako agente bihurtzea.

Garapena

EKINTZAK:

Zurrumurruen Aurkako Sarearekin elkarlana mantentzea.

Kanpora begirako elkarlana garatzea.

Teknikari eta Batzorde lraunkorrarekin formakuntza egitea.

20201eko elkarlanaren ebaluazioa egitea.

KRONOGRAMA:

URT	OTS	MAR	APIR	MAI	EKA	UZT	ABU	IRA	URR	AZA	ABE

Ebaluazioa

- Urtean zehar ZASek antolatutako ekitaldi zein formazioetan parte hartzea.
- Zurrumurruen Aurkako estrategia EGKren diskurtsoan txertatzea.
- Ebaluazioa 3.

5.5 Nazioarteko egunak

Gai konkreturen bati buruzko gazteen iritzi eta eskaerak jasotzeak aukera ematen du gero hauek batu eta gizarteari eta bereziki administrazioari helarazteko. Halaber, urteko egun konkretuetan nazioarteko egunak ospatzeak gai zehatz batzuei ikusgarritasuna ematen laguntzen du, baita kontzientziatzen zein agendan berriro jartzen ere. Hori izan da EGK-k lan-arlo desberdinekin lotura duten nazioarteko egun batzuek nabarmenduta izatearen arrazoia.

Bake eta bizikidetza lan-arloaren kasuan 3 dira urtean zehar gorriz markatuta dauden egun bereziak. Otsailaren 19an kirolean LGTBI+fobiaren aurkako nazioarteko eguna ospatzen da, irailaren 21ean Bakearen Nazioarteko Eguna eta abenduaren 10ean Giza Eskubideen nazioarteko eguna.

Helburuak

HELBURU OROKORRA:
Bake eta bizikidetzarekin lotura duten nazioarteko egunetan adierazpenak egitea.

HELBURU ZEHATZAK:

- Gazteen ahotsa jasotzea nazioarteko egun hauetan.
- EGKren lana ezagutaraztea.

Garapena

EKINTZAK:

Kirolean LGTBI+fobiaren aurkako nazioarteko eguna ospatzea.

Bakearen nazioarteko eguna ospatzea.

Giza Eskubideen nazioarteko eguna ospatzea.

Urteko zabalpenen ebaluazioa egin.

KRONOGRAMA:

URT	OTS	MAR	APIR	MAI	EKA	UZT	ABU	IRA	URR	AZA	ABE

Ebaluazioa

- Zabalpenetan ahalik eta gazte eta eragile gehienengana iristea.
- Aldarrikapen berritzaileak egitea.
- Egun hauen inguruan EGK-k duen diskurtsoa ezagutaraztea

5.6 Inor Atzean Utzi Gabe lantaldea

2020an EGK-k UNESCO Etxearen lankidetza eskaera jaso zuen, Agenda 2030a lantzeko. Euskadi mailako beste eragile batzuekin batera **Inor Atzean Utzi Gabe lantaldea** eratu eta ordutik parte hartu du bertan EGK-k, gazteen ikuspegia mahaigaineratuz. Nazio Batuek sortutako agenda hau marko orokortzat hartuz, EAEn egoera zaurgarrian dauden kolektiboekin Agenda 2030aren helburuak nola lortu lantzen du lantaldeak, formakuntzak eta ikerketak eginez besteak beste.

AMUGE, Mujeresen la Diversidad, Foro Rural Mundial, Aldarte eta Gehitu izan dira azken urtean EGKrekin batera lantaldean egondako elkarteak. Honek gizartearen periferian gelditzeko arriskua izan dezaketen kolektiboak kontuan hartzea du helburu. UNESCO Etxeak ulertzen du EAEko gazteriak ez dituela ziurtatuta Agenda 2030ak identifikatzen dituen helburu guztiak, eta horregatik hain zuzen ere eskatu zion EGKri lantaldean parte hartzea.

2021ean lantaldearekin jarraitzea da helburu, Nazio Batuen Agenda betetzeko asko gelditzen delako EAEn oraindik.

Helburuak

HELBURU OROKORRA:

Euskal gazteen artean Agenda 2030a betetzeko eman beharreko pausoen alde lan egitea.

HELBURU ZEHATZAK:

- 2020an egindako ikerketa amaitu eta zabalpena egitea.
- Agenda 2030aren formakuntzak aurrera eramatea.
- Lantaldeari jarraikortasuna ematea.
- Gazteen erronka eta aldarrikapenak gainerako elkarteei eta UNESCO Etxeari helaraztea.

Garapena

EKINTZAK:

Ikerketa amaitzea.

Agenda 2030 formakuntza garatzea.

Agenda 2030 jardunaldia antolatzea.

Urtearen ebaluazioa egitea.

KRONOGRAMA:

URT	OTS	MAR	APIR	MAI	EKA	UZT	ABU	IRA	URR	AZA	ABE

Ebaluazioa

- Gazteek bizitza duina izateko Agenda 2030ak jasotako helburuak bermatzea.
- Gazteen iritziak eta erronkak lantaldeak ezagutzen dituela ziurtatzea.
- Erabakiguneetara ondorioak helaraztea.

5.7 Eragileekin elkarlana

Gizartean eragile ugari daude bakearen eta bizikidetzaren gaiak jorratzen dituztenak, betiere gazteekin erlazionatuta. Alboan, Baketik, AMEKADI, ENESCO Etxea, SOS Arrazakeria, Ikuspegi edota Kale DorKayiko bezalako eragileekin, besteak beste, badaukagu urte askotako harremana. Elkar ezagutzatik haratago elkarlana sustatzean bi eragileek irabazten dute, gazteentzako eta gizarterako lanketa sakonago eta emankorragoan bideratuz.

Dagoeneko badauden elkarlanak indartuz iraunkortasuna errazten da, eta eragile berriengana gerturatuz aniztasuna handitzeko hautuaren aldeko esfortzua indartuko da. Horren adibide izango da Pirineoetako Lan Elkartearekin elkarlana indartzeko esfortzua egingo duela EGK-k 2021ean, beraiek antolatutako Gazteen Foro Transpirenaikoan parte hartuko baitute EAEko 12 gazte ordezkarik.

Helburuak

HELBURU OROKORRA:
Gizarteko eragileekin elkarlana sustatzea.

HELBURU ZEHATZAK:

- Elkarlana ez dugun eragileekin harremanetan jartzea edo harreman hori sendotzea.
- Bake eta bizikidetza gaiekin lan egiten duten eragileen artean EGKren lana ezagutaraztea eta beraien proiektuetarako EGKren diskurtsoa helaraztea.

Garapena

EKINTZAK:

Eragileekin elkarlana garatzea.

Urtearen ebaluazioa egitea.

KRONOGRAMA:

URT	OTS	MAR	APIR	MAI	EKA	UZT	ABU	IRA	URR	AZA	ABE

Ebaluazioa

- EAE mailan lan egiten duten eragileek gazteen ikuspuntu eta iritziak ezagutzea EGKrekin elkarlana sustatu ostean.
- EGK-k bake eta bizikidetzan arloan duen papera indartzea.

5.8 Egunerokoa

EGKren lan arlo bakoitzean egiten den lanaz eta proiektuez gain, Kontseiluaren eguneroko funtzionamendua bermatzeko bestelako ekintzak ere egin behar dira. Honen barruan sartu daitezke ondorengo ekintzak, horiek gabe EGKren egunerokotasuna kolokan gelditu daitekeelarik: bilerak, aholkularitza eta bulegoa kudeatzeko lanak, memoriak, proiektuak aurrera eramateko gestio desberdinak edota datorren urterako plangintza.

Helburuak

HELBURU OROKORRA:
EGKren eguneroko lana normaltasunez garatzen dela bermatzea.

HELBURU ZEHATZAK:

- COVID-19ak sortu ditzaken ezustekoei erantzun egokia ematea.
- Lantaldeko gainerako kideei euren lanean laguntzea.

Garapena

EKINTZAK:

Egoitzako kudeaketa lanak.

Plangintzak garatzea.

Lantaldearekin eta kanpoko eragileekin bilerak.

Urteko proiektuen garapena, balorazioa eta justifikazioa.

2021eko memoriak prestatzea.

KRONOGRAMA:



Ebaluazioa

- Bake eta Bizikidetza lan-arloari egiten zaizkion eskaerei erantzun egokia ematea.
- Lana hobetzeko egiten diren ekarpenak jaso eta lanean antzematea.
- Eguneroko lanak era egokian kudeatzea.

- EGK-ko beste lan-arloetako proposamenei baliagarriak diren balorazioak ematea eta ekintzetan parte hartzea.

6.BERDINTASUNA

Berdintasun lan-arloak, urtero bezala, bi ildotan banatzen du bere jarduna: alde batetik, iraunkorrak diren proiektuen jarraipena egiten du eta horien ebaluazioa aurrera eramaten du ekarpen berriak txertatuz, eta bestetik, 2021. urtera bideratutako proiektu berriak garatzen ditu. Aurten ere hala izango da, aurreko urtean bezala, COVID-19ak izandako ondorioak proiektuengan eragin berezia izan dezakeela kontuan izanik.

Ondorengo lerroetan EGK-k 2021an Berdintasun lan-arlotik aurrera eramango dituen proiektuak ageri dira. Hauek dira proiektuak hurrenez hurren: **Gaur8 lantaldea, EGK-ko II. Berdintasun Plana, Gune Anitza, Berdintasun Protokoloak, Zaintzen Plaza, Beijing +25, Zutabeak Arrakalatzen, Hezkidetzaren lanketa, Harremana feminismoko eragileekin eta egunerokoa.**

Horrez gain, 2021ak aldaketa batzuk izango ditu berdintasun lan-arloan. Izan ere, Batzar Orokorrean EGK-ko II. Berdintasun Plana aurkeztuko da. Honen zirriborroa jada egina dago, eta

Batzarrera arte, honen lanketa eta zabalpena egingo da. Onartzen den unetik aurrera, berriz, berdintasuneko erreferentziazko abiapuntua izango da.

6.1. GAUR8 LANTALDEA

Gaur8lantaldea EGK-ko berdintasun lan-arloko diskurtsoan sortzen dituen espazioa da. Espazioa da, batzuetan bilera irekiak egiten direlako, beste batzuetan itxiak, batzuetan jende asko biltzen delako, beste batzuetan ez hainbeste.

2016an sortu zen eta ordutik feminismoari eta LGTBI+ kolektiboari buruzko hainbat gai lantzen dira bertan. 2020an, sare egonkor bat egitea lortu zen, eta 2021an hori izango da Gaur8 lantaldearen motorra. Zentzu honetan, motor honek parte hartuko du aurrerago azalduko den **Zaintzen Plaza** izeneko proiektuan. Hara ere, feminismoari eta LGTBI+ kolektiboetako kanpo eragileekin lan egingo da baita ere.

2021ean, alde batetik, protokoloen jarraipena eta indarkeria matxistaren gaineko prebentzio lana egin nahi da. Bestetik, errealitatean dauden gai ezberdinei buruzko diskurtsoak landu nahi dira, EGK-k ere zer esana izateko.

Helburuak

HELBURU OROKORRA:
EGKren Berdintasun arloko diskurtsoa eratu eta eguneratzea.

HELBURU ZEHATZAK:

- Berdintasun lan-arloko erronka berriak identifikatzea eta proposamen berriak egitea.
- Diskurtsoak sortzea eta gizarteratzea.

- Berdintasun arloan dauden gazte elkarteen eta norbanakoen harremana saretzea eta sendotzea.
- Zaintzen Plazan parte hartzea.

Garapena

EKINTZAK:

Gaur8 taldea osatzen duten kideekin harremana mantendu eta egingo diren bilerak prestatu.

Lantaldearekin bildu eta gai anitzekiko hausnarketak garatu.

Lantaldearen proposamenak garatu eta landu.

KRONOGRAMA:

URT	OTS	MAR	APIR	MAI	EKA	UZT	ABU	IRA	URR	AZA	ABE

Ebaluazioa

- Egindako bilkura kopurua eta hauetan izandako partaidetza.
- Topaketetan ateratako diskurtsoen nolakotasuna.
- Lortutako sare eta harreman berriak.

6.2. EGK-ko II. Berdintasun Plana

Lau urteren ondoren, 2021ean EGK-ko II. Berdintasun Plana garatu da. Horretarako, lehenik, 2020ko irailean, lehen plana ebaluatzeko hausnarketa saio batzuk egin ziren Batzorde Teknikoa eta Batzorde Iraunkorrarekin. Baita elkarteei zuzenduriko galdetegi bat egin ere.

Planaren neurrien garapena.

Hau eginda, EGK-ko II. Berdintasun Plana burutu da, 2021-2024 urteko iraunaldia izango duena. Hau, Batzar Orokorrean onartuko da eta hainbat helburu eta ekintza barnebiltzen ditu. Beraz, 2021eko erronka hori izango da lehenik, planean egituratuta dagoena egitea eta berdintasun ikuspegia egunerokoan txertatzea.

2021an ordea, urrats bat eman nahi da eta Planaren sozializazio bat egin. Alde batetik honek biltzen dituen antolakuntza organoek (Batzorde Teknikoa, Batzorde Iraunkorra, Berdintasun Batzordea, Gaur8...) Planarekiko duten ardura zein den ezagutu eta hartzeko, eta bestetik, Planak berak dituen lanketa ezberdinak EGK-ko elkarteei hurbiltzeko.

Helburuak

HELBURU OROKORRA:
EGKren barne nahiz kanpo lanean berdintasuna zeharkako balore gisa errotzea.

HELBURU ZEHATZAK:

- EGK-ko II. Berdintasun Plana ezagutaraztea.
- Berdintasun Planean zehaztuak dauden neurriak inplementatzea.
- Ezartzen diren neurrien jarraipena eta balorazioa egitea.

Garapena

EKINTZAK:

Planaren difusioa eta hau hausnartzeko espazioak.

Planaren neurrien ebaluazioa.

KRONOGRAMA:

URT	OTS	MAR	APIR	MAI	EKA	UZT	ABU	IRA	URR	AZA	ABE

Ebaluazioa

- Ekintzak aurreikusita dauden epeak.
- Neurrien inpaktuen balorazioa.
- Neurrien eraginkortasunaren ebaluazioa.
- Urte bukaerako ebaluazio osoa.

6.3.Gune Anitza

GUNE ANITZA

Gune Anitza Berdintasuna eta Aniztasunarekiko apustua erakusten duen zigilua da, eta hau EGKren Berdintasun arloko proiektu iraunkorretako bat da.

Urtetik urtera espazio ezberdinak atxiki dira proiektura. Urteren baten bideo bat grabatu da proiektuari difusioa emateko, besteren baten, eskuorriak banatu dira espazioetan **Gune Anitzari** buruzko informazioa azalduz.

2021ean, proiektuaren jarraipena egin nahi, espazio berriekin harremana izan eta horiek **Gune Anitzera** atxikitzeko aukerak zabaldu. Gainera, aurreko urteetan atxikitako espazioen azterketa eta difusioa egingo da.

Helburuak

HELBURU OROKORRA:

Berdintasunarekiko eta aniztasunarekiko aldekotasuna erakustea eta hauekiko gazteek dituzten proposamenak gune ezberdinetan txertatzea.

HELBURU ZEHATZAK:

- **Gune Anitz** gehiago txertatzea.
- Atxikitako espazioen ebaluazio bat egitea.
- Hobekuntza proposamenak eguneratuak mantentzea.

Garapena

EKINTZAK:

Gune Anitza zigilua interesgarri gera daitekeen guneen bilaketa eta horiekin harremanetan jartzea.

Jada **Gune Anitza** diren espazioen ebaluazio jarraitua egin.

KRONOGRAMA:

URT	OTS	MAR	APIR	MAI	EKA	UZT	ABU	IRA	URR	AZA	ABE

Ebaluazioa

- Lortutako espazio berrien zenbatekoa eta horiekin izandako difusioa nolakoa izan den.
- Aurreko urteetan atxiki diren espazioen jarraipena nolakoa izan den.

6.4. Berdintasun Protokoloak

EGK-k indarkeria matxista gaitzesten du eta honen aurrean esku hartzea ezinbestekotzat du. Esku hartze hau mila modutara egin daiteke, eta horietako bat, indarkeria matxistaren ondorio diren kasuen aurrean salaketa publikoak egitea da.

2017ko Batzar Orokorrean salaketa publikorako protokolo baten proposamena onartu zen eta 2020ra arte eredu hau izan da jarraitu dena. Diskurtsoak, ordea, aldatzen joan dira urterik urte, eta salaketa publikorako protokoloak ere aldaketa batzuk ekarri behar izan ditu berarekin.

Hala, 2021ean, salaketa publikorako protokolo berria onartuko da eta honen kudeaketa eramango da aurrera.

Helburuak

HELBURU OROKORRA:

Emakumeen aurakako erasoak eta eraso LGTBI+ fobikoen aurrean **Berdintasun Protokolo** aktibatzea.

HELBURU ZEHATZAK:

- Eguneratuak izan diren **Berdintasun Protokolo**ak martxan jartzea.
- **Berdintasun Protokolo**en eragina mantentzea.
- EGK-k Berdintasunarekiko duen konpromisoa berrestea.

Garapena

EKINTZAK:

Albisteen jarraipena eta ematen diren erasoen informazioa biltzea.

Erasoa ematen den guztietan dagokion aktibazioa egitea.

Erasoen gaineko prebentzioa lantzea.

KRONOGRAMA:

URT	OTS	MAR	APIR	MAI	EKA	UZT	ABU	IRA	URR	AZA	ABE

Ebaluazioa

- Aktibatutako protokolo kopurua eta horien kudeaketa.

- Lortutako eragina gazterian.

6.5. Zaintzen Plaza

Pertsonok zaintzak jasotzeko beharra dugu gure bizitza guztian zehar, izaki zaurgarri eta elkarren mendekoak garelako. Zaintzarik gabe bizitzari eustea ezinezkoa da. Historikoki emakumeak izan dira zaintza lanak eta lan erreproduktiboak bere gain hartu dituztenak. Lan ikusezin bat izan da, gutxi baloratua, baina oso zentrala. COVID-19aren krisiak agerian utzi ditu eredu honen gabeziak eta zaintzen garrantzia, eta beraz, jendarte bezala, kolektiboki, zaintzen erantzukizun soziala hartzeko dugun beharra.

Zaintzez hitz egitean gutako bakoitzaren bizitzak bere egunerokotasunean funtzionatzea ahalbidetzen duten ezinbesteko ekintza guztiez ari gara, eguneroko bizitzaren berreraikitze prozesuaz, ongizate fisiko eta emozionala sostengatzen dituena. COVID-19aren krisian guztia geratu zenean geratu ezin izan ziren lan guzti horietaz.

'Zaintzen Plaza' izeneko proiektu honekin, gai hau EGKra ekarri nahi genuke, EGKra. Plaza bat sortu nahi da, espazio bezala. Elkarren artean hitz egiteko eta ikasteko gune moduan.

Horretarako, publiko nagusia **Ematzipa...zer?** lantaldea eta **Gaur8** lantaldea izango dira. Tresnak emango ditugu diskurtsoak sortzeko, talde izaera garatzeko eta zaintzen inguruko ezagutza handitzeko. Horrez gain, plaza, beste norbanako eta eragileei ere zuzendurik egongo da, puntualki lantzen diren hitzaldietan parte hartzeko edota konstanteki diskurtsoak garatzen laguntzeko ere bai.

Proiektu hau, beraz, Enpleguko eta Etxebizitzako lan arloekin batera koordinatuko da.

Helburuak

HELBURU OROKORRA:
Gazteriaren ikuspuntutik zaintza zentroan jartzen duten ereduak lantzea alor desberdinetatik.

HELBURU ZEHATZAK:

- Gazteriari zaintza lanak bizitza posible egiten duten ekintza multzo zabal eta ezinbesteko bat bezala ikusaraztea.
- Zaintza lanei duten garrantzia eta duintasuna ematea eta erantzukizun soziala zein norbanakoena sustatzea gazteen artean.
- Gazteen artean hausnarketa eta elkarbanaketarako espazio bat sortzea.

- Zaintza lanak gazteekin alor desberdinetatik lantzea, bizitzaren esfera guztietan eragina dutela ikusarazteko.
- Gazte eragile desberdinek zaintzen inguruan duten diskurtsoez baliatuz EGKren diskurtso propioa sortu.

Garapena

EKINTZAK:

Zaintza lanak aztertu eta landu EAEko testuingurua kontuan izanik

Zaintzak lantzen dituzten eragileak edota gazteak identifikatu eta hauekin harremanetan jarri.

Plazaren dinamizazioa aurrera eraman: hitzaldiak prestatu, dinamikak kudeatu...

Plazaren dinamikaren ondorioak landu.

KRONOGRAMA:

URT	OTS	MAR	APIR	MAI	EKA	UZT	ABU	IRA	URR	AZA	ABE

Ebaluazioa

- Ateratzen diren diskurtsoen sakontasuna eta gaiaren lanketa kualitatiboa.
- Gai honen aurrean gazteen erantzuna, kuantitatiboki eta baita ere kualitatiboki (jarrera, interesa etab.).
- Zaintzen plazarekin lotuta lantzen diren gaien aniztasuna.

- Plazan hausnartutakoak zenbateko irisgarritasuna duen gazteengan eta beste eragile batzuengan.

6.6. Beijing+25

2020an 25 urte bete ziren Beijingeko Ekintza Plataformak bizitzako eremu guztietan (publikoan zein pribatuan) emakumeen berdintasunezko parte-hartzea oztopatzen duten neurriak ezarri zituenetik. Egindako aurrerapenak gorabehera, benetako aldaketa ez da izan espero zena.Hori dela-eta, 2020an Berdintasuna Sortzeko Foroa ospatu nahi izan zen hiru hiriburu ezberdinetan: Mexikon, Parisen eta New Yorken.

COVID-19ak sortutako pandemiak ordea, 2020rako aurreikusita zeuden proiektu eta ekimen asko bertan behera utzi behar izatea eragin zuen. 2021an, egin izan ez ziren topaketa horiek berrartzeko prozesuari ekingo zaio, posible den moldeetan eta datetan.

EGK-k, prozesu honetan parte hartuko du, Emakunderekin batera. Helburua ikuspegi intersekzionala eta belaunaldien artekoa txertatzea izango denez, EGK-k belaundali gazteen aitortza eta ezagutza trasladatzen saiatuko da.

Horretarako, lehenik eta behin EGKrekin lanean dabiltzan emakume gazteekin Foroan landuko diren gaiak jorratzeko topaketak burutuko dira. Eta ondoren, maila internazionalean ospatuko den topaketan parte hartuko da.

Helburuak

HELBURU OROKORRA:

Beijingeko tratatuaren25. urteurrena dela-eta, elkarrizketa publiko bat sortzea, Euskal Autonomia Erkidegoan genero-berdintasunaren aldeko premiazko ekintzarako eta erantzukizunerako, ikuspegi intersekzional eta belaunaldien arteko batetik.

HELBURU ZEHATZAK:

- Beijing+25erako euskal ibilbide-orri bat egitea.
- Urteko lehen seihilekoan lan-prozesu bat diseinatzea eta aktibatzea Beijing+25en inguruan, Emakunderen aholkularitza-elkartearekin elkarlanean.
- Foroan lan prozesuan parte hartzen duten emakumeen parte-hartzea bultzatzea.

Garapena

EKINTZAK:

Landu nahi den edukiaren azterketa eta egingo den topaketaren prestaketa.

Emakunderekin batera egingo den genero arteko topaketa.

KRONOGRAMA:

URT	OTS	MAR	APIR	MAI	EKA	UZT	ABU	IRA	URR	AZA	ABE

Ebaluazioa

- Lortu diren emaitzak.
- Izandako parte-hartzea.
- Egindako sare berriak.

6.7 Zutabeak Arrakalatzen

EGKn genero ikuspegia zeharkako balorea da eta gainontzeko lan-arloetan egin den moduan, etxebizitza arloan ere genero perspektiba txertatzea ezinbestekotzat jo da, beraz bide honi ekin zitzaion 2020an Zutabeak Arrakalatzen proiektuarekin. Alde batetik, etxebizitzarako sarbidean gizon eta emakume gazteen arteko nolakotasuna aztertu nahi izan zen, eta generoaren eraikuntzak espazioan duen eraginari buruz hausnartu. Bestetik, etxebizitzen tipologia eta eredu berrien inguruan ere ikertu nahi izan zen. Izan ere, gaur egun gailentzen den etxebizitza eskaintzaren ereduek familia eredu tradizionalari erantzuten diote, eta aldiz, ez da hau jendartean gailentzen den bizikidetza unitatea; are gutxiago, gazteen artean.

2020an egin zen lanketaren ekitaldi nagusia Urriaren 31n antolaturiko Zutabeak arrakalatzen mahai ingurua izan zen; bertan argi ikusi zen gazteen artean gai honek sortzen duen interesa. Asko dira eredu tradizionaletik aldenduz beste era bateko elkarbizitza eredu batzuk jarraitu nahi lituzketen gazteak, baina ez da beti erraza. 2021n zehar, gai hauen inguruan hausnartuz eta hauek landuz, Zutabeak Arrakalatzen proiektuaren bidez tresnak eman nahi zaizkie gazteei, etxebizitzari genero ikuspegitik begiratzeko, beste era bateko bizikidetza alternatibetara moldatu daitezkeen etxebizitzak identifikatzeko, eta etxebizitzak irizpide hauen arabera baloratzeko.

Helburuak

HELBURU OROKORRA:

Zutabeak Arrakalatzen-en proiektuari jarraipena ematea eta etxebizitza eredu berrien egungo legeriari ekarpenak egitea.

HELBURU ZEHATZAK:

- Zutabeak Arrakalatzen proiektuaren 2020ko infografiak zabaltzea.
- Identifikazio bat sortzea beste bizikidetza eredu batzuk landu nahi dituzten gazteekin.
- Eredu berriak genero ikuspegitik lantzen jarraitzea.
- EAE-ko testuinguruan etxebizitza eta bizikidetza alternatibak planteatu nahi dituzten gazteei irizpide eta tresnak lantzeko espazio bat sortzea.
- Administrazio eta gazteriaren arteko zubi lana egitea.
- EGKren diskurtsoa aberastea.
- Berdintasuna zeharkako balore gisa praktikara eramatea.

Garapena

EKINTZAK:

Edukiaren lanketa eta ekitaldien diseinua egin EGK-ko teknikarien arteko koordinazio bileren bitartez.

Ekitaldiaren antolaketa tekniko eta diseinua prestatu.

Ekitaldiaren deialdiaren eta Zutabeak Arrakalatzen 2020ren zabalpena.

Ekitaldia/k gauzatu.

Balorazioa gauzatu.

KRONOGRAMA:

URT	OTS	MAR	APIR	MAI	EKA	UZT	ABU	IRA	URR	AZA	ABE

Ebaluazioa

- Gaiaren lanketa kualitatiboa.
- Gai honen aurrean gazteen erantzuna eta jarraipena. Bai ekitaldiei dagokienez, kuantitatiboki eta baita ere, kualitatiboki (jarrera, interesa etab.)
- EGKren diskurtsoa eratzeko lanketaren nolakotasuna.

6.8. Hezkidetzaren lanketa

Aurreko urtean, "Haziak Astialdira" proiektuaren bitartez, hezkidetza hezkuntza ez formalean nola ematen den landu zen EGK-ko hezkuntza eta berdintasun lan arloetatik Astialdi munduan lanean dabiltzan zenbait elkarterekin ateratako lan saio dinamiko batzuen bitartez, honako informazioa biltzea lortu zen:

- Nola lantzen da hezkidetza hezkuntza ez formalean?Zein toki hartzen du? Nola nahiko litzateke landu?

- Zeintzuk dira arlo honetan dauden erronkak? Zein proposamen egiten dira gaia jorratzeko?

Txosten baten bildu ziren ateratako erantzun, ideia eta proposamenak. Txostena jada diseinatuta eta inprimatuta dago eta beronen aurkezpena egitea faltako litzateke momentu honetan. Beraz, aurrera begira ondorioen zabalpena eta sozializazioa egin behar da.

Analisi honetatik abiatuz, aurten taldeei formakuntzarako tresnak ematea da asmoa, hori baita taldeekin partekatutako analisian ateratarako premia edo gabezia handiena.

Hezkidetzaren inguruko formakuntza saio edo ziklo bat da urte honetan egin nahi dena, zeinak bi atal izango zituen. Hezitzaileen formakuntzarako ekintza desberdinak sustatuko dira.

Asmoa, hezkidetzan adituak direnak gure espaziora gonbidatzea eta modu erakargarri batean astialdi taldeak bertara gonbidatzea izango da. Honen bitartez, dauden beharrei zein tresnekin aurre egin daitekeen aztertu eta horretarako zein metodo erabili behar diren konpartitu nahi dira.

Bi formakuntza saio hauek egun desberdinetan baina egitarau berberaren baitan eramango dira aurrera, gai desberdinak abordatuz eta elkarteen interesekoak eta beharren araberakoak direnak hautatuz.

Helburuak

HELBURU OROKORRA:

Hezkuntza ez formaleko agenteei hezkidetzaren lanketarako tresnak eskaintzea.

HELBURU ZEHATZAK:

- Hezkuntza ez formaleko gazteen premiei erantzun bat ematea.
- Honen baitan lan egin nahi duten elkarteekin sarea indartzea.
- EGK-k hezkidetzan egindako lana sozializatzea.

Garapena

EKINTZAK:

- Formakuntza saioak eta aurkezpena diseinatu eta kudeatu.
- "Haziak Astialdira" txostena aurkeztu.
- Formakuntza saioak aurrera eraman.
- Proiektu osoaren ebaluazioa egin eta etorkizunean sor daitezkeen lanketak pentsatu.

KRONOGRAMA:

URT	OTS	MAR	APIR	MAI	EKA	UZT	ABU	IRA	URR	AZA	ABE

Ebaluazioa

- Egindako txostenaren difusio maila eta hedapena.
- Lorturiko harreman berriak.
- Hezkidetzaren gainean egindako lanketak.

6.9. Data esanguratsuak

Urtean zehar, badaude hainbat Nazioarteko Egun, historiako gertaera jankin batzuen ondorioz edota orain gutxi finkaturiko aldarrikapenengatik, adierazpenak egiteko tartea hartzen dena. Feminismoarekin lotura zuzena dute horietako batzuek, besteak beste, Kirolean LGTBI+fobiaren Aurkako Nazioarteko Eguna edota Emakumeen Kontrako Indarkeriaren Aurkako Nazioarteko Eguna.

EGK-k urtero, egun jakin horietan, bere diskurtsoak argitaratzeko aprobetxatzen du eta 2021ean hori egiten jarraituko du. Argitaratuko den diskurtsoaren moldea diseinatu, koordinatu eta izandako aldarrikapenak izan duen inpaktua ebaluatuko du.

Helburuak

HELBURU OROKORRA:

Urtean zehar feminismoarekin zerikusia duten data garrantzitsuak azpimarratzea eta egun horietan manifestu edo diskurtsoa plazaratzea.

HELBURU ZEHATZAK:

- Data esanguratsuen garrantzia azpimarratzea eta gaur egungo egoerarekin lotzea.
- Gazteriak egun horiek ezagutzea.
- EGKn parte-hartzea bultzatzeko tresna bezala erabiltzea.
- EGKn parte hartzen duten elkarteak data hauetan publikatutako manifestu eta diskurtsoetan inplikatu eta hauen atxikimenduak aurrera eraman indarrak batzeko.

Garapena

EKINTZAK:

Zientziako Emakume eta Neskaren Nazioarteko Eguna, diskurtsoa garatu eta plazaratu.

Kirolean Homofobiaren aurkako Nazioarteko Eguna, diskurtsoa garatu eta plazaratu.

Emakume eta gizonen arteko soldata berdintasunaren aldeko nazioarteko eguna, diskurtsoa garatu eta plazaratu.

Emakume Langilearen Nazioarteko Eguna, diskurtsoa garatu eta plazaratu.

LGTBI+ fobiaren Kontrako Nazioarteko Eguna, diskurtsoa garatu eta plazaratu.

Emakumeen Kontrako Indarkeriaren Aurkako Nazioarteko Eguna, diskurtsoa garatu eta plazaratu.

KRONOGRAMA:

URT	OTS	MAR	APIR	MAI	EKA	UZT	ABU	IRA	URR	AZA	ABE

Ebaluazioa

- Egindako kanpainen difusio maila eta hedapena.
- Komunikabide edo gizarte eragileen atentzioa eman izana.
- Egindako kanpainen atxikimenduak.

6.10. Harremana feminismoko eragileekin

Feminismoak bultzada handia izan du azken urteetan eta eragile asko dabiltza antolatuta gai ezberdinen gainean hausnartzen. Hiri eta herri ezberdinetan daude talde feministak, eta Euskal Herriko Mugimendu Feministak ere indar handia du. LGTBI+ mugimenduan ere, borroka ezberdinak ari dira aurrera eramaten.

Hala, EGKrentzat funtsezkoa da eragile hauekin harremanetan egotea. Alde batetik gazteekin, hauen beharrak zeintzuk diren jakiteko eta horien aurrean lanketa ezberdinak egiteko. Bestetik, eragile publikoen kasuan, gazteen iritzia hauengana transmititzeko eta erabaki publikoetan ahalik eta gehien eragiteko.

Helburuak

HELBURU OROKORRA:

Berdintasuna eta LGTBI+ arloan lan egiten duten elkarteen, eragileen, instituzioen, administrazioen eta arduradunen artean harremana sortzea.

HELBURU ZEHATZAK:

- EGKn egiten den lana sozializatzea eta ikusgai bihurtzea.
- Gazteriaren perspektiba bat ematea beste erakunde eta administrazio batzuen proiektuetan, EGK erreferente bihurtuz.
- EGK-ko proiektuetan pertsona gazte berrien parte hartzea lortzea

Garapena

EKINTZAK:

Feminismoa eta LGTBI+ arloan diharduten eragile ezberdinekin bilerak egin eta harremanak sendotu.

EGK barruan dauden eta EGK-koak ez diren elkarteen artean gazteen parte hartzea bultzatu feminismoa eta LGTBI+ gaiei buruzko proiektuetan.

EGK-ko elkarteek eta administrazioak antolaturiko eta feminismoa eta LGTBI+fobia lantzen diren espazioetan parte hartu.

KRONOGRAMA:

URT	OTS	MAR	APIR	MAI	EKA	UZT	ABU	IRA	URR	AZA	ABE

Ebaluazioa

- Eragile publiko eta pribatu esanguratsuenekin izandako bilkura.

- Egindako kontaktu berri kopurua.
- EGK eragile horien artean ezagutzera eman izana.

6.11 Egunerokoa

EGK-ko lan-arlo guztiek ezinbesteko dute kontuan izatea urtean zehar beharrezkoak izango diren barne nahiz kanpo koordinaziorako bilerak, baita ager daitezkeen bestelako proiektuetan parte-hartzeko aukerak ere. Gainera, Berdintasun lan-arloaren kasuan, gaiak berak dakarren zeharkakotasuna eta I Berdintasun Planaren barne neurriak ezarri behar direla kontuan izanik, barne lanak pisu handia hartuko du.

Helburuak

HELBURU OROKORRA:

EGK-ko beste lan-arloekin barne koordinazioa eta kanpo eragileekin harreman berriak eraiki ahal izatea.

HELBURU ZEHATZAK:

- Egoitzetako kudeaketa lanak egitea.
- Beste lan-arloetako berdintasun ikuspegiko ekarpenak egitea.
- Memoriak, hurrengo urterako Plangintza eta Berdintasun Planaren ebaluazioak egitea.
- Hedabideetan agertzea, hala eskatzen dutenean.
- EGKren barne antolakuntzarako bileratan parte hartzea.

Garapena

EKINTZAK:

Bilera mota desberdinak egin.

Memoriak, hurrengo urterako Plangintza eta Berdintasun Planaren ebaluazioak egin.

KRONOGRAMA:

URT	OTS	MAR	APIR	MAI	EKA	UZT	ABU	IRA	URR	AZA	ABE

Ebaluazioa

- Egindako barne lanaren eraginkortasuna eta koordinazioa.
- Aurreikusita ez zeuden proiektu berrien kudeaketa eta antolaketa.

7. KOMUNIKAZIOA



Komunikazio lan-arloaren helburua Euskadiko Gazteriaren Kontseilua (EGK) gazte eta administrazioengana hurbiltzea da. Bide honetan jarraitzeko asmoarekin, 2021an ezagutza maila handitzea eta proiektu desberdinen bitartez EGKren diskurtsoak zabaltzea eta gizarteratzea izango da jomuga. Gainera, zenbait komunikazio tresna eguneratuko dira.

7.1 Diseinatzaile gazteen lan-poltsa

Euskadiko Gazteriaren Kontseilua
Consejo de la Juventud de Euskadi

Diseinatzaile gazteen lan-poltsa
Bolsa de trabajo de personas jóvenes diseñadoras

Aurreko urteetan bezala, EGKren lantalde Teknikoak izango dituen beharrak aurreikusita, diseinatzaile gazteen lan-poltsarekin elkarlanean arituko da elkarteen plataforma. Lehenik, 2020ko lan-poltsan dauden eta geratuko diren diseinatzaileak aukeratuko dira. Ondoren, proiektuak gauzatzeko behar diren diseinatzaile profilak ikusita, deialdi berria egingo da eta honekin batera hauen aukeraketa egingo da.

Helburuak

HELBURU OROKORRA:

EGK-k 2021an zehar izango dituen diseinu lanak egiteko diseinatzaile gazteen lan-poltsa osatzea diseinatzaile gazteei aukerak emanez.

HELBURU ZEHATZAK:

- EGK-k bere eguneroko lana zabaltzeko beharrezkoak diren euskarrien diseinua, maketazioa, etab. Euskarri hauek kartelak, eskuorriak, liburuxkak, txostenak, eta abar izango dira.
- EGKren hainbat kontzeptu zabaltzeko irudi espezifikoak gauzatzea.

Garapena

EKINTZAK:

2020an diseinatzaile gazteen lan-poltsa osatzen zutenak ebaluatu.

Lantalde Teknikoaren behar diren profil berriak zehaztu.

2021ari begira deialdi berria egin eta CV eta porfolioak jaso.

Urtean zehar Lantalde Teknikoaren beharrak kudeatu.

KRONOGRAMA:

URT	OTS	MAR	APIR	MAI	EKA	UZT	ABU	IRA	URR	AZA	ABE

Ebaluazioa

- Teknikari bakoitzak diseinatzaile batekin lan egin ostean ebaluazioa egingo du. Urte amaieran, diseinatzaile bakoitzaren ebaluazio orokorra egingo da (baliteke behin baino gehiagotan lan egitea diseinatzaile berdinarekin) eta orduan erabakiko da 2022ko lan-poltsan nork jarraituko duen eta nork ez.

- Aurkeztutako produktuek zer nolako erantzuna izan duten: administrazioen balorazioa, Batzorde Iraunkorraren iritzia, Lantalde Teknikoaren ebaluazioa, gazteengandik jasotako erantzuna, etab.
- Ezarri diren beharrak aztertu nahikoak izan diren ala ez ikusteko. Ezetz izanez gero, deialdi berriari begira behar horiek gehitu.

7.2 Piztu! buletin digitala

Piztu! buletin digitala bi edo hiru astean behin bidaltzen zaie harpidetu diren gazte, gazte-elkarte, norbanako eta administrazioei. Gazteek gazteentzat egindakoa da eta, bertan, besteak beste, honako edukiak biltzen dira:

- Euskadiko Gazteriaren Kontseiluaren (EGK) azken albisteak.
- EGK-ko kide diren elkarteen jarduerak.
- Bestelako gazte eragileen jarduerak.
- Euskadiko gazteentzat interesgarriak diren ekitaldiak.

Datuen Babeseko aldaketa aurretiko kopurua berreskuratzeko lanean ari gara.

Helburuak

HELBURU OROKORRA:

Euskadiko Gazteriaren Kontseiluaren (EGK), gazte elkarteen eta bestelako gizarte eragileen lana ikusaraztea eta **Piztu! buletin digitalak** duen itxura eguneratzea.

HELBURU ZEHATZAK:

- Komunikazio baliabide gutxi dituzten gazte elkarte eta gizarte eragileei komunikazio euskarri bat eskaintzea.
- Gazte elkarteek eta gizarte eragileek beste elkarte eta eragile batzuk egiten dutenaren berri jasotzea.
- Gazte elkarteen eta gizarte eragileen lanaren eta deialdien aniztasuna ikusarazi eta balioan jartzea.
- Euskara sustatzea (%60 gutxienez euskaraz).
- Gazteriak dituen proposamenak eta eskaerak aditzera ematea.
- Gazteek dituzten proposamenak ere espazioen kudeaketarako gomendioetan txertatzea eta gazteen diskurtsoa balorean ezartzea.
- Harpidedun kopurua igotzea.
- Itxura gaur egun zabaltzen diren buletin digitaletara egokitzea, eduki bisualei garrantzia handiagoa emanez.

Garapena

Piztu! buletin digitala bi edo hiru astean behin bidaltzen da, EGK-k egunerokoan sortzen dituen albisteen araberakoa da maiztasuna.

EKINTZAK:

Piztu! buletin digitala kudeatu.

Lantalde Teknikoarekin koordinatu ekitaldi eta proiektuetan **Piztu! buletin digitala** zerbitzura harpidetzeko orriak eraman daitezen.

Piztu! buletin digitalaren itxura berritu.

KRONOGRAMA:

URT	OTS	MAR	APIR	MAI	EKA	UZT	ABU	IRA	URR	AZA	ABE

Ebaluazioa

Komunikazio arloak **Piztu! buletin digitalak** izan dituen emaitzen ebaluazioa egingo du urte-amaieran, aldez aurretik finkatutako irizpideak jarraituz:

- Maiztasuna mantentzea: bi astean behin bidaltzearena bete den ala ez.
- Harpidedun kopurua handitzen jarraitzea: 2018ko Datu Babeseko aldaketa aurretiko kopurura gerturatzea.
- Albisteen aniztasun maila bermatzea.
- Buletinean agertutako eragileen aniztasun maila handitzea.
- Jasotako iradokizunak handitzea: eragile eta administrazio sarearen inplikazioa eta eragileen kopurua haztea.
- Lortutako inpaktu maila mantentzea: getResponde bidez, bidalitako buletin bakoitzaren estatistikak lor daitezke.

7.3 Sare sozialak kudeatu

Euskadiko Gazteriaren Kontseiluak hainbat sare sozial erabiltzen ditu zenbait helbururekin. Batetik, lanerako garrantzitsua izan daitekeen informazioa jasotzeko; bestetik, eguneroko lana ezagutarazteko; eta, azkenik, gazteei, elkarteei eta bestelako eragileei zerbitzua emateko.

EGK-k dituen sare sozialak honakoak dira: Twitter, Facebook, Instagram, LinkedIn eta YouTube. Lehen hiruetan edukia ia egunero eskegitzen da (Twitter eta Instagramen egunean behin baino gehiagotan). Bestetik, Linkedin EGKren albisteak (webgunekoak batez ere) posizionatzeko erabiltzen da. Eta, azkenik, YouTuben ekitaldi ororen ostean egindako laburpen bideoak eskegitzeko. Hau, era berean, webguneAren bitartez zabalduko da eta eragile ezberdinei eta parte-hartzaileei emailez bidaliko zaie.

Helburuak

HELBURU OROKORRA:

EGKtik kanpo dauden gazte, gazte-eragile, elkarte, hedabide eta administrazioekin konektatzea eta lotura, interakzio eta irismen hori handitzea.

HELBURU ZEHATZAK:

- EGKren azken albisteen berri ematea.
- Erabiltzaileekin elkarrizketa sortzea.
- EGKrentzat garrantzitsua izan daitekeen informazioa biltzea.
- EGKren marka kudeatzea eta gai ezberdinen gainean bere posizionamendua plazaratzea.
- Gazte elkarteen azken albisteak gertutik jarraitzea eta gazteria arloko bestelako eragileen azken orduaren berri izatea.
- Gazte eragileen albisteen eta agenda-deialdien berri ematea.
- Gazteei buruz edo gazteentzat interesgarriak izan daitezkeen azken orduko albisteak ematea.

Garapena

Sare sozialen kudeaketa urte osoan zehar egiten da. Ia egunero hainbat bilaketa egiten dira EGK-k dituen sareetan eta baita Googlen ere: zer esan den EGKri buruz, zer nolako oihartzuna

izan duten aurkeztutako proiektuek eta hauen ondorioz izandako agerraldiek, EGK-k indarrean dituen protokoloak direla-eta gertakariren bat egon den, etab.

Horretaz gain, EGKrekin zerikusi zuzena edo EGK-ko lan-arloekin lotura duen informazioa eskaintzen da, erabiltzaileekin interakzio handiagoa bilatzeko eta EGKren marka indartzeko.

Azkenik, tarteka-marteka, ebaluazioa egiten da: interakzioa, irismena, jarraitzaile kopurua, etab. Horretarako sare sozial bakoitzak eskaintzen dituen erremintak erabiltzen dira, ebaluazio atalean zehazten den bezala.

EKINTZAK:

Sare sozialak kudeatu.

KRONOGRAMA:

URT	OTS	MAR	APIR	MAI	EKA	UZT	ABU	IRA	URR	AZA	ABE

Ebaluazioa

Sare-sozialen kudeaketaren ebaluazioa egiteko hainbat tresna erabiltzen ditu komunikazio teknikariak:

Facebook orrialdearekin sare sozialak berak ematen dituen baliabideak erabiltzen dira. Hauei esker argitalpen bakoitza zenbat pertsonek atsegin duten jakin daiteke, zenbatek elkarbanatu eta zer nolako irismena izan duen, hau da, zenbat inpaktu izan dituen. Horretaz gain, hilero estatistika orokorragoak ateratzen dira. Era honetan estrategia eralda daiteke, eta, kanpaina zehatzak eginez gero datu konkretuak lor daitezke.

Twitter profilarekin sare sozialak eskaintzen duen TwitterAnalytics erabiltzen da, interakzioa, irismena eta bestelako datu esanguratsuak lortzeko. Kasu honetan ere hilero estatistika orokorragoak ateratzen dira. Era honetan estrategia eralda daiteke, eta, kanpaina zehatzak eginez gero datu konkretuak lor daitezke.

Instagramen argitalpen bakoitzak duen irismena begiratzen da, ikustaldiez gain zer nolako interakzioa egon den aztertzeko. Era berean, egindako storyek izandako bilakaera eta tarteka jarraitzaile kopuruan izandako aldaketak kontuan izango dira.

Azkenik, proiektu garrantzi bakoitzean erabiltzen den traola aztertzen da.

2021rako helburua hauetan sakontzen jarraitzea da, erabiltzaileek EGK-ko sareekin duten harremanari buruz ahalik eta informazio gehien ateratzeko.

7.4 www.egk.eus webgunearen mantenua



Euskadiko Gazteriaren Kontseiluak bere eguneroko lana egiteko webgunea du, bere zerbitzari eta mantenuarekin. Horretarako, kanpo enpresa hautatu da. Horretaz gain, bai Lantalde Teknikoa zein Batzorde Iraunkorra komunikatu ahal izateko Gmail kontu bat dute.

Helburuak

HELBURU OROKORRA:

EGKrenwww.egk.eus webguneak ondo funtzionatzea eta EGKren Lantalde Teknikoak eta Batzorde Iraunkorrak helbide elektronikoa izatea.

Garapena

EKINTZAK:

EGK-ko webguneak duen zerbitzua emateko enpresekin harremanetan egon.

KRONOGRAMA:

URT	OTS	MAR	APIR	MAI	EKA	UZT	ABU	IRA	URR	AZA	ABE

Ebaluazioa

- Webguneak urtean zehar zein arazo izan dituen eta hautatutako enpresak emandako erantzuna hauen aurrean.

7.5 www.egk.eus webgunea kudeatu

EGKren webgunea, www.egk.eus, elkarte plataformaren tresna eraginkorrena da Lantalde Teknikoak egiten duen lana islatzeko: lan-arlo bakoitzaren azken albisteak, lan deialdiak, antolatutako ekintza eta proiektuen berri eman, lantaldeen bilerak jakinarazi eta sortzen diren produktuak (bideoak, txostenak, etab.) publikatu, EGK-ko elkarteen informazioa eskaini, gazteei bideratutako ekimenak agendan txertatu, etab.

Helburuak

HELBURU OROKORRA:

EGK-k egiten duen lanaren berri ematea ekosistema digitalaren erdigune izanda.

HELBURU ZEHATZAK:

- EGKren azken albisteen berri ematea.
- EGKren argitalpenak Interneten eskuragarri jartzea.
- EGK-k dituen gela eta materialen lagapena kudeatzea.
- EGK-ko Lantalde Teknikoko kideekin harremanetan jartzeko prozesua erraztea.
- EGK-ko elkarteen eta EGK-koak ez diren elkarteen jardueren berri ematea, webguneko agendan.
- EAEko gazteentzat interesgarriak diren ekitaldi, proiektu edo egitasmoen berri ematea webguneko agendan.
- Elkarteen zerrenda gaurkotu bat mantentzea.

Garapena

Webgunearen kudeaketa urte osoan zehar garatzen den lana da, hau da, albisteen atala EGKren eguneroko lanarekin hornitzea eta agendan EAEko gazteak protagonista dituen edo haientzat interesekoak diren ekitaldi, egitasmo edo proiektuak jasotzea egunero egin beharreko lanak dira. Horretaz gain, webguneak behar duen bezala erantzun dezan, komunikazio-teknikariak optimizatu egingo du (albiste guztiek irudi optimizatuak izatea, irisgarritasuna bermatzea erabiltzaile orori, SEO aholkuak jarraitu, etab.) Google bilatzailean kokapena hobetze aldera.

Bestetik, webgunean finkoagoak diren atalak (banerrak, elkarteen datuak, irudiak, etab.) bestelako maiztasun batekin berrituko dira. Honela, erabiltzaileek jarraipen bat nabarituko dute, baina aldi berean kanpaina berezien berri izango dute. Honekin batera, txostenak ateratzen diren heinean webgunean eskegiko dira edonork ikus eta irakur ahal ditzan.

EKINTZAK:

Webgunea kudeatu.

KRONOGRAMA:

URT	OTS	MAR	APIR	MAI	EKA	UZT	ABU	IRA	URR	AZA	ABE

Ebaluazioa

- GoogleAnalytics zerbitzuaren bitartez www.egk.eus webguneak jasotzen duen erabiltzaile kopurua. Aurreko urteekin alderatuko da eta, era berean, kanpaina edo informazio-zabaltze puntualak egon direnean erabileran gorakadaren bat eman den aztertuko da.
- Bestetik, bai urtean zehar eramango den estrategia zein 2022an eta etorkizunean jorratuko dena birdefinitzeko, hilero jarraipen bat egingo zaio.
- WebguneakGoogle bilatzailean duen posizioa.
- Albisteen eta, orokorrean, webgunearen SEO egoera.
- Publikatutako albiste, txosten edo argazki-galerietan jasotako iruzkinak.
- Lantalde Tekniko eta Batzorde Iraunkorraren iritzia.

7.6 Irudiak berritu

EGK Amaia Elorzak egindako irudiez baliatu da azken urteetan, besteak beste, lan-arloak identifikatzeko, dokumentuak desberdintzeko eta banatzeko, webguneko atalak aurkezteko eta, orokorrean, Logoaz gain EGKren nortasun korporatiboa bere harremanetan islatzeko. Orain, irudi horiek berritzeko prozesua zabalduko da, betetzen duten funtzio hori bermatzen jarraitzeko asmoarekin.

Helburuak

HELBURU OROKORRA:

EGKren nortasun korporatiboan garrantzia duten irudiak berritzea.

HELBURU ZEHATZAK:

- EGKren harremanetan irudi eguneratuak izatea.
- EGKren marka sendotzea.

Garapena

EKINTZAK:

EGK-k eguneroko lanean eta harremanetan erabiltzen dituen irudiak zerrendatzea.

Irudia berriak egingo dituen diseinatzailea hautatu.

Irudi guztiak aldatu.

KRONOGRAMA:

URT	OTS	MAR	APIR	MAI	EKA	UZT	ABU	IRA	URR	AZA	ABE

Ebaluazioa

- Aldaketen harrera.
- Lantalde Teknikoaren eta Batzorde Iraunkorraren iritzia.

7.7 Lan-arloka sareak sortu

Gazteen parte-hartze ereduak eraldatu dira eta, jada, elkartegintza ez da hau bideratzen duen modu bakarra. Hori dela-eta, EGKtik garai berrietara moldatzeko esfortzua egin da azken urteetan eta 2021an jarraipena emango zaio batetik, lan-arlo bakoitzarekin elkarlanean aritu daitezkeen eragileak identifikatuz; eta, bestetik, proiektu edo egitasmo bakoitzean interesa izan dezaketen elkarte edo norbanakoak identifikatuz. Era horretan, apurka-apurka kontaktu zerrenda osatzea eta EGKren parte-hartzea are pluralagoa izateko.

Helburuak

HELBURU OROKORRA:

EGKren lan-arlo bakoitzeko harreman-sarea osatzea.

HELBURU ZEHATZAK:

- Lan-arlo bakoitzak egiten dituen lantalde, bilera edo ekimenetan parte-hartzaile kopurua igotzea.
- Elkarlanean eragile gehiagorekin aritzea.
- EGK ezagutaraztea.
- EGKren marka sendotzea.

Garapena

EKINTZAK:

EGK-ko lan-arloekin modu batera edo bestera elkarlanean aritu daitezkeen elkarteen zerrenda osatu.

Egindako zerrenda EGK-ko lan-arloek antolatutako ekimenetarako erabili.

2021an zehar egindako agenda ebaluatu, lortu diren kontaktuekin izandako elkarlana aztertu eta 2022rako falta daitezken profilak identifikatzen saiatu.

KRONOGRAMA:

URT	OTS	MAR	APIR	MAI	EKA	UZT	ABU	IRA	URR	AZA	ABE

Ebaluazioa

- Lan-arloka teknikari bakoitzarekin lan-arlorako sortutako sarea ebaluatu: kontaktuak nahikoak diren, bidean sortu diren berriak gehitu.
- Lantalde Tekniko eta EGK-ko elkarteen proposamenak, egonez gero, kontuan izan.

7.8 Gizarte aldaketarako herritartasuna

Deustuko Unibertsitatearen Donostiako campusean Gizarte Aldaketarako Herritartasuna ikasgaian parte hartuko da Alboan elkartea eta Loiola Etxeko kideekin batera. Proiektu honetan bi ikasle-talde laguntzea eta aholkatzea izango da funtzioa, parte-hartzeari buruzko eragin plan txiki bat osatu eta gizartean eraldaketa bat bilatzeko.

Helburuak

HELBURU OROKORRA:

Deustuko Unibertsitateko ikasleak aholkatzea herritarren parte-hartzearen gaineko eragin plan txiki bat diseinatu, burutu eta ebaluatzeko.

HELBURU ZEHATZAK:

- EGKren irismena handitzea.
- Profil anitzeko gazteak ezagutu eta interesgarriak izan daitezkeenekin harremanak egitea.
- Euskadiko gazteriaren parte-hartzea sustatzea.

Garapena

EKINTZAK:

Irakasgaian zehar, ikasle-taldeekin zein irakasleekin bildu.

KRONOGRAMA:

URT	OTS	MAR	APIR	MAI	EKA	UZT	ABU	IRA	URR	AZA	ABE

Ebaluazioa

Proiektuaren ebaluazio-irizpideak irakasgaian ezarrita daudenak izango dira. Bestetik, proiektuaren balorazio orokortu bat egingo da irakasle zein ikasleekin.

7.9 Bilbo YouTuber aukeraketa

Bilbao Gazte plataformaren helburua gazteentzako egiten dena zabaltzea da, ez soilik Bilbao Gazteak edo Bilboko Udaleko Gazteria sailak antolatutakoak; Bilboko gazteentzako gainerako sailek eta orokorrean edozein eragilek antolatzen dituen ekintzak baizik. Azken urteetan identifikatu da antolatzen dena gazteei helaraztean hobekuntzak eman daitezkeela. Eta, horietako bat, YouTuberren aukeraketa izan da, egungo planak beste modu batera helarazteko.

Bilboko Udaletxeko gazteria sailak bi YouTuber bilatzeko antolatutako lehiaketa honetan komunikazio-teknikaria epaimahaiko kide izango da, pasa den urtean egin zen bezala..

Helburuak

HELBURU OROKORRA:

Bilbon dagoen eskaintza zabaldu eta honi buruz gazteek duten iritzia pilatzea.

HELBURU ZEHATZAK:

- Bilboko Udala eta gazteriaren artean harremana sendotzea.

Garapena

Bilboko Udalak zehaztutako daten arabera, komunikazio teknikariak izena ematen duten gazteen bideoak ikusiko ditu eta ostean ebaluatu. Azkenik, epaimahaiaren kide izango da YouTuber berriak aukeratzerakoan.

Ebaluazioa

- Bilboko Udalak zehaztutako irizpideen arabera.

7.10Barne komunikazioa

Euskadiko Gazteriaren Kontseiluaren komunikazio oro ez da kanpora begirakoa. Barne komunikazioa ere oso garrantzitsua da, eta hau, komunikazio teknikariaren ardura da. Batetik, Lantalde Teknikoa osatzen duten lan-arloen artekoa; bestetik, Lantalde Teknikoa eta Batzorde Iraunkorraren artean; eta, azkenik, EGK osatzen duten ia 60 erakundeekin. Hiru euskarri hauen

funtzionamendu egokiak soilik bermatzen du EGKren funtzionamendu egokia eta eraginkortasuna, are gehiago Covid-19ak sortutako beharrizanekin.

Helburuak

HELBURU OROKORRA:

Euskadiko Gazteriaren Kontseiluko (EGK) barne-komunikazioa hobetzea, bai Lantalde Teknikoa osatzen duten lan-arloen artean, bai lantaldearen eta Batzorde Iraunkorraren artean eta bai EGK osatzen duten elkarteen artekoa.

HELBURU ZEHATZAK:

- Bileren denbora murriztea eguneroko komunikazioa arinagoa eginez eta hobetuz.
- Lan-arloen artean sinergiak sortzea.
- EGK osatzen duten erakundeekin harremana sendotu, haien presentziari garrantzia gehiago ematea (webgune, sare sozial, **Piztu! buletin digitala**).
- Covid-19ak sortutako egoeretara egokitu (zoom, Skype).
- Batzorde Iraunkorrean parte-hartzea.

Garapena

Urte osoan zehar egingo den prozesua izango da. Presidentziarekin elkarlanean tarteka aztertuko da barne komunikazioa eta hau hobetzeko neurriak hartuko dira.

Bestetik. EGK-ko elkarteekin harremana mantenduko da webgunean dauden haien datuak eguneratuak izateko, **Piztu! buletin digitala** eta sareetan euren edukiak zabaltzeko eta EGK-k egiten duenaren feedback-a jasotzeko.

EKINTZAK:

Barne komunikazioa kudeatu.

KRONOGRAMA:

URT	OTS	MAR	APIR	MAI	EKA	UZT	ABU	IRA	URR	AZA	ABE

Ebaluazioa

- Lantalde Teknikoaren barne komunikazioa nolakoa izan den (teknikari eta presidenteari iritzia galdetuta ebaluatuko da).
- Teknikari eta loturen arteko komunikazioa nolakoa izan den (teknikari eta Batzorde Iraunkorreko kideei galdetuta ebaluatuko da).
- Lantalde Tekniko eta Batzorde Iraunkorraren arteko komunikazioa nolakoa izan den (lantalde tekniko eta Batzorde Iraunkorrari galdetuta ebaluatuko da).

7.11 EGK 35. urteurrena

Aurten EGKren 35. urteurrena da. Data garrantzitsu hau erabili nahi da EGKren ibilbidea goraipatzeko. Gizarteak pandemiarekin bizi duen egora ezagututa, ekitaldi bat egin nahi da urrian osasun-agintariek eta ezarritako murrizketek ahalbidetzen duten heinean.

Ekitaldiaren formatua eta hau garatu ahal izateko beharrezkoak diren euskarri komunikatiboak zehaztuko dira, baita ekitaldi horretatik haratago egin daitezken ekintzak.

Helburuak

HELBURU OROKORRA:

EGKren 35. urteurrena ospatzea.

HELBURU ZEHATZAK:

- EGK ezagutzera ematea.

- EGKren eguneroko lanean parte hartzen duten eragile, elkarte, administrazio, hedabide eta langileak batzea.
- EGKren marka sendotzea.

Garapena

EKINTZAK:

Urteurrena antolatzeko lanak banatu.

Urteurrena ospatzeko beharrizan komunikatiboak identifikatu eta gauzatu.

Urteurrenaren ekitaldi nagusia ospatu.

KRONOGRAMA:

URT	OTS	MAR	APIR	MAI	EKA	UZT	ABU	IRA	URR	AZA	ABE

Ebaluazioa

- Jendearen harrera.
- Hedabideetan eta iritzi publikoan izandako inpaktua.
- Lantalde Teknikoaren eta Batzorde Iraunkorraren iritzia.

7.12 Komunikabideekin harremana

Euskadiko Gazteriaren Kontseiluaren (EGK) ekintza zein parte hartzen duen ekimenen hedapena egin. Honetan sartzen dira, besteak beste:

- Prentsaurrekoak eta prentsa-oharrak egin.
- EGKren ekitaldiak hedabideen agendan argitaratzeko bidali.
- Hedabideek eskatutako elkarrizketak kudeatu, baita EGKren proiektuen aurkezpen elkarrizketak (EGK-k proposatutakoak).
- Kazetarien eskaerak eta proposamenak kudeatu.
- EGK-k komunikabideetan dituen agerpenak zerrendatu.

Helburuak

HELBURU OROKORRA:

Euskadiko gazteen interesekoak diren edo izan daitezkeen gaiak hedabideen eta, beraz, gizartearen agenda mediatiko eta sozialean txertatzea.

Garapena

- Aldian aldiko prentsaurrekoak egin, hauen ostean prentsa-oharra bidali hedabideei eta bertako albisteetan EGKren manifestu eta komunikatuak zabaldu.
- EGK-k dituen hainbat protokoloen aktibazioa eta hedapena: lan istripuen ondorioz zauritu edo hildako pertsona gazteak, Indarkeria Matxistaren eta Indarkeria LGTBI+fobikoaren aurkako protokoloa eta pertsona gazteen Giza Eskubideen urraketaren harira aktibatzeko protokoloa.
- Deialdiak agendatan txertatu.
- Iritzi-artikuluak idatzi eta txertatu.
- EGK aurkezten dituen txosten, proiektu eta egitasmoen harira elkarrizketak lotu.
- Kazetari eta hedabideen datu basea eguneratua mantendu.
- Indarkeria Matxistari buruz kontzientziatu, honen hainbat forma ezagutzera eman eta EGK-k Indarkeria Matxistaren aurka lan egiten duen entitate gisa duen konpromisoa berretsi.
- Gazteek bizi proiektua egiteko behar duten baldintza sozioekonomikoak bermatzeko eskaria gizarteratu.
- Gazterian arazo honek duen pisua eta seriotasuna gazte diskurtso batetik aztertu.
- Gazteek dituzten aurre egiteko proposamenak eta eskura dituzten baliabide desberdinak gizarteratu eta aditzera eman.

KRONOGRAMA:

URT	OTS	MAR	APIR	MAI	EKA	UZT	ABU	IRA	URR	AZA	ABE

Ebaluazioa

- Hedabideetan izandako agerraldi kopurua, baita jasotako elkarrizketa eta erreportaje eskari kopurua.
- Lortutako kontaktu berriak.

7.13 Egunerokoa



Plangintzan zehar zehaztutako guztiaz gain, egunerokoan beste hainbat kontu sor daitezke, besteak beste, bulegoan gerta daitezkeen kontuak, jasotako dei eta galderen kudeaketa, aholkularitza zerbitzuak, memoria eta plangintzak garatzea, etab.

Helburuak

HELBURU OROKORRA:

Komunikazio teknikariaren egunerokoan sortzen diren bestelako kontuak kudeatzea.

Garapena

EKINTZAK:

Egunerokoan sortzen diren kontu ezberdinak kudeatu.

KRONOGRAMA:

URT	OTS	MAR	APIR	MAI	EKA	UZT	ABU	IRA	URR	AZA	ABE

7.14 Beste lan-arloekin harremana

EGK-k jarduera ugari egiten ditu urtean zehar. Komunikazio lan-arloarekin zerikusi zuzena ez badute ere, teknikariaren ardura da hauen zabalpenean laguntzea eta gainerako lan-arloekin (Etxebizitza, Enplegua, Hezkuntza, Partaidetza, Bakea eta Bizikidetza, Berdintasuna eta Koordinazioa) elkarlanean aritzea.

Etxebizitza

- Emantzipa... Zer? lantaldearen deialdiak egin.
- Zutabeak arrakalatzen.
- Emantzipazio neurrien mapa interaktiboa zabaldu eta osatu.
- Zaintza.
- Eskubideen dekalogoa.

Enplegua

- Emantzipa... Zer? lantaldearen deialdiak egitea.
- Lan istripuen aurkako protokoloa.
- Data esanguratsuak.
- Kalitatezko enplegua.
- Predoc.
- Formakuntza

Hezkuntza

- Astialdi Foroa lantaldeen deialdiak egin.
- Astialdi Foroaren formakuntza ikastaroen kanpaina zabaldu: albistea eta prentsa-oharra.
- Astialdi Foroaren udako kanpaina zabaldu: albistea eta prentsa-oharra.
- Gazte migratzaileei buruzko lanketa.
- Hezkuntza Foroa lantaldearen deialdiak egin.
- "Garraio egoera eta gazteak" analisiaren zabalpena.

Parte-hartze

- EGK Sendotzen.
- EGK-ko elkarteekin aste-bukaera.
- 35. Urteurrena.
- Elkarteen topaketa.

Bake eta Bizikidetza

- Etikasi programa.
- Bake lantaldearen deialdiak.
- Gazte migratzaileei buruzko lanketa.
- Gazteak eta bakea mahai inguruak.
- #HistoriaOsatzen.

Berdintasuna

- Gaur8 lantaldearen deialdiak.
- Gune Anitza.
- Indarkeria Matxista eta Indarkeria LGTBI+fobikoaren aurkako protokoloa aktibatu.
- Belaunaldi arteko proiektua (Beijing).
- Etxebizitza eta generoa.
- Data esanguratsuak.
- Hezkidetza.

Presidentzia

- 2021ko Batzar Orokorraren komunikazioa.
- Presidentziarekin lotura duten beste hainbat ekintzatan parte hartu: bilerak, topaketak, hitzaldiak, komunikabideekin harremanak, ekitaldi instituzionalak, beste elkarteekin harremanak babesa eman eta lagundu

Gai administratiboak

- EGKren egunerokotasunean sortzen diren lantxoak kudeatu.
- Datu Babeserako legea betetzea

8.PRESIDENTZIA

8.1 Batzorde Iraunkorra

Batzorde Iraunkorra EGKren erabaki-organoa da. EGK-ko eskubide osoko kide diren elkarteetako 11 ordezkarik osatzen dute. Horrela banatzen da: presidentea, 2 presidenteorde, diruzaina, idazkaria eta 6 batzordekide. Batzar Orokorra urtero ospatu arren, Batzorde Iraunkorraren eraketa 2 urtetik behin erabakitzen da. Bere ardura da EGKren gaineko erabakiak hartzea, lan-ildoak ezartzea eta EGKren irudi publikoa landu eta aurrera eramatea.

2019an osatu zen egun Iraunkorra osatzen duen taldea. Hori dela eta, aurten, Batzorde Iraunkorra berritu eta kideek EGKren gainean daukaten ezagutzan sakondu beharko dute, batzarrean onartzen den plangintza aurrera ateratzeko ahalegina egin eta urtean zehar, dagokion erabaki berriak hartu.

Bestalde, Presidenteak zubi-lana egiten jarraituko du Batzorde Iraunkorraren eta Batzorde Teknikoaren artean. Batzorde Iraunkorraren bileretara teknikariak azalduko dira, txandaka. Hartara, EGKren lana modu zuzenagoan ezagutzera emango da Batzorde Iraunkorrean eta erabakiak hartzeko era erraztuko da.

Azkenik, Presidentziatik Batzorde Iraunkorra gai guztien berri emateko lana egingo du baita bileretatik at ere, telefonoz eta e-postaz nagusiki.

Helburuak

HELBURU OROKORRA:
EGKri dagokion gaien gaineko erabakiak bideratzea.

HELBURU ZEHATZAK:

- EGKren kide diren taldeekiko komunikazioa lantzea.
- Batzorde Iraunkorra osatu, gorpuztu, taldetasuna lantzea.
- Batzorde Iraunkorraren erabakigarritasuna sustatzea.
- Ardura banaketa bermatzea.
- B.I.kideen parte-hartzea sustatzea.

Garapena

EKINTZAK:

Batzorde Iraunkorraren bilerak

Lantalde Teknikoarekin bilerak

KRONOGRAMA:

URT	OTS	MAR	APIR	MAI	EKA	UZT	ABU	IRA	URR	AZA	ABE

Ebaluazioa

- Bileren maiztasuna.
- Bileren eraginkortasuna.
- Erabakien gauzatzea.
- Gizarte-oihartzuna.
- Elkarteen erantzuna.

8.2 Lantalde teknikoaren koordinazioa

Lantalde Teknikoa EGK-ko teknikariek osatzen dute, bakoitzak bere arloan lan egiten du egunero eta denen artean proiektu guztiak kaleratzen dira; hau da, nahiz eta arlo bateko proiektua izan, denen eskuetatik pasatzen dira egitasmo guztiak, EGKren diskurtsoarekin bat etor daitezen eta koherentzia bermatu dadin.

Presidentziaren aldetik lantaldearen kohesioa eta koordinazioa bilatuko dira eta zubi-lana egingo da Batzorde Iraunkorraren eta Lantalde Teknikoaren artean, aurrenekoan hartutako erabakiak bigarrengora eraman eta bigarrenaren lana aurrenekoari transmititu ahal izateko. Hala, bi Batzordeen dinamikak uztartuko dira.

Lantalde Teknikoa hilabetean behin elkartzen da txandaka hiru egoitzetan. Bilera hauen deialdia eta dinamizazioaren ardura presidentearenak dira. Horrez gain, ostiralero Skype bidezko bilera teknikoak egiten dira. Pandemia hasi zenetik bilera gehienak online izatera pasatu arren, presentzialtasuna bilatuko da.

Aurten ez da aldaketa handirik espero, bi teknikari berri sartu dira eta hauek behar duten laguntza eskainiko da. Hala ere, lantaldea egonkortzen hasi da eta horrek lagunduko du.

Helburuak

HELBURU OROKORRA:
Lantalde Teknikoaren eta Batzorde Iraunkorraren artean zubi-lana egitea.

HELBURU ZEHATZAK:

- Lantaldearen kohesioa eta koordinazioa bermatzea.
- Lantaldearen beharrei erantzuna ematea.

Garapena

EKINTZAK:

Lantalde Teknikoaren bilerak

Batzorde Iraunkorrarekin bilerak

Aukeraketa prozesua

Egunerokotasuna

KRONOGRAMA:

URT	OTS	MAR	APIR	MAI	EKA	UZT	ABU	IRA	URR	AZA	ABE

Ebaluazioa

- Bileren maiztasuna.
- Bileren eraginkortasuna.
- Erabakien gauzatzea.
- Teknikarien arteko koordinazioa.
- Batzorde Teknikoaren eta Batzorde Iraunkorraren arteko informazio trukaketa.
- Gatazka eza.
- Kontratu berriak gauzatzea.

8.3 Batzorde Ekonomikoa

Batzorde Ekonomikoak EGKren aurrekontua, gastuak eta diru-sarrerak kontrolatu eta kudeatzen ditu. Batzorde Ekonomikoa EGK-ko idazkariak (administrari-lana burutzen baitu), diruzainak eta presidenteak osatzen dute. Hitzarmenen bidez lortutako dirulaguntzak, elkarteen kuotak eta bestelako diru-sarrerak kudeatzen dituzte eta unean-uneko gastuak eta egoera ekonomikoa zaintzen dituzte.

Batzorde honetan 2020ko aurrekontuaren kudeaketa egingo da, eta Batzorde Iraunkorreko kideekin adostuta, administrazioarekin hitzarmenak negoziatuko dira. Honez gain, beharrezkoak izango diren gastuak baloratu eta onartuko dira. Hurrengo urteari begirako hitzarmenak prestatuko dira eta aurrekontuaren aurreikuspena egingo da.

Hortaz gain, 2018an hasitako auditoretzari jarraipena emango dio eta informazio guztia prestatuko da Batzar Orokorrean aurkezteko.

Helburuak

HELBURU OROKORRA:
EGKren alor ekonomikoaren jarraipena egitea eta alor honetan unean uneko erabakiak hartzea.

HELBURU ZEHATZAK:

- 2020ko aurrekontua prestatzea.
- Administrazioarekin hitzarmenak negoziatzea.

- Diru-sarrera eta gastuen gaineko jarraipena egitea.
- Balantze ekonomikoa prestatzea.

Garapena

EKINTZAK:

Batzorde Ekonomikoaren bilerak.

Aldundiekin bilerak.

Eusko Jaurlaritzarekin bilerak.

KRONOGRAMA:

URT	OTS	MAR	APIR	MAI	EKA	UZT	ABU	IRA	URR	AZA	ABE

Ebaluazioa

- Egoera ekonomikoa.
- Egindako bilerak eta hauen eraginkortasuna.
- Diru-sarrera eta gastuen arteko oreka.
- Hurrengo urterako aurreikuspena.

8.4 EGK-ko Batzar Orokorra

EGKren Batzar Orokorra urtero ospatzen da. Bertan, EGK-ko kide diren elkarteei aurreko urteko memoria eta urte horretarako plangintza aurkezten zaie, onartu edota atzera bota daitezen.

Gainera, kide berrien sarrera bozkatzen da eta EGKri dagozkion erabaki garrantzitsuenak adosten dira.

Bi urtetik behin Batzorde Iraunkorraren eraketa erabakitzen da Batzar Orokorrean, horregatik aurten aukera emango da libre dauden lekuak elkarteek betetzeko.

Batzarraren prestaketa Batzorde Iraunkorrari badagokio ere, presidentea da Batzarreko Mahaiko arduraduna eta Batzarra bera dinamizatzen duena.

Helburuak

HELBURU OROKORRA:
2020ko Batzar Orokorra koordinatzea eta dinamizatzea.

HELBURU ZEHATZAK:

- Batzarrerako beharrezko dokumentazioa prestatzea.
- Aldez aurretik elkarteen proposamenak jaso eta aurkeztea.
- COVID-19ko segurtasun neurriak bermatzea.

Garapena

EKINTZAK:

Memoria eta plangintzaren prestaketa.

Elkarteen proposamenak jaso eta aurkeztu.

Kidetze eskaerak jaso eta aurkeztu.

KRONOGRAMA:

URT	OTS	MAR	APIR	MAI	EKA	UZT	ABU	IRA	URR	AZA	ABE

Ebaluazioa

- Bileren maiztasuna.Batzarraren eraginkortasuna.
- Elkarteen iritzia.
- Hartutako erabaki kopurua.

8.5 Elkarlana eta ordezkaritza

8.5.1 Eusko Jaurlaritza

Bere izaera juridikoa, finantzaketa-bidea eta helburuak direla eta, Euskadiko Gazteriaren Kontseiluak kontaktu zuzena mantentzen du bere egunerokotasunean Eusko Jaurlaritzarekin, EAE mailako elkarlanerako guneak partekatzen dituztelarik. Gainera, EGKren finantzaketa-bide nagusia den aurrekontu-partida instituzio honen eskutik dator.

Aurten, EGKren lana balioan jartzeko ahaleginean jarraituko da. 2019an, Eusko Jaurlaritzako beste sail batzuekin harremana mantendu zen: Bake eta Bizikidetza Idazkaritza Nagusiarekin, Enplegu Zuzendaritzarekin, Hezkidetza Planarekin, Kanpo Harremanetako Zuzendaritzarekin, Emakunderekin eta Etxebizitza zuzendaritzarekin. Lortutako emaitza arrakastatsuetan oinarrituz, 2020an elkarlan horiekin jarraitzea da asmoa.

Helburuak

HELBURU OROKORRA:
Elkarlanerako guneak identifikatzea.

HELBURU ZEHATZAK:

- Zuzendaritza eta idazkaritza ezberdinekin informazio trukaketa bermatzea.
- Lankidetza sustatzea.
- EGKren aurrekontua egonkortzeko lana egitea.
- Eragin politikoa izatea.

Garapena

EKINTZAK:

Informazio trukaketa bilerak

EGKren lana balioan jartzea

KRONOGRAMA:

URT	OTS	MAR	APIR	MAI	EKA	UZT	ABU	IRA	URR	AZA	ABE

Ebaluazioa

- Bileren maiztasuna.
- Bileren eraginkortasuna.
- Lankidetza gune berrien sorrera.
- Aurrekontuan eragina.

8.5.2 Aldundiak

Bere izaera juridikoa, finantzaketa-bidea eta helburuak direla eta, Euskadiko Gazteriaren Kontseiluak kontaktu zuzena mantentzen du bere egunerokotasunean instituzio publikoekin. Aldundiekin ere gazteen egoera, behar eta interesen inguruan lan egiten da. Horretarako, 2020anlurralde historiko bakoitzeko foru administrazioarekin harremana mantentzeko ahalegina egingo da.

Helburuak

HELBURU OROKORRA:

Elkarlanerako guneak identifikatzea (Gaztematika, GazteBiz, gazteen egoera sozioekonomikoa, elkartegintzaren errealitatea...)

HELBURU ZEHATZAK:

- Lankidetza sustatzea.
- Hitzarmenetako aurrekontuak bermatzeko lana egitea.

Garapena

EKINTZAK:

Elkarlanerako guneen identifikazioa.

Aurrekontuaren inguruko lanketa.

KRONOGRAMA:

URT	OTS	MAR	APIR	MAI	EKA	UZT	ABU	IRA	URR	AZA	ABE

Ebaluazioa

- Bileren maiztasuna
- Bileren eraginkortasuna
- Lankidetza gune berrien sorrera
- Lankidetzaren eraginkortasuna
- Aurrekontuan eragina

8.5.3 Eusko Legebiltzarra

Bere jardueren eta asmoen berri emateko, EGK-k agerraldiak egiten ditu Legebiltzarrean, Gazteria Batzordearekin bilduaz. Urtean behin gutxienez ohiko agerraldia egiten du ordura arte egindako lana plazaratu eta hortik aurrerako asmoak azaltzeko.

Horrez gain, EGK-k zenbait proiektu eta horien ondorioak plazaratzeko agerraldi eskaerak egin ohi ditu.

Bestalde, legebiltzarkideek EGKren agerraldiak eskatuz gero, gai zehatzen gainean erantzuna emateko, bertaratu eta hala egingo da. 2014ean Gazteen Lantaldea abian jarri zenez, parte-hartze aktibo bat izateko ahalegina egin da, baina taldearen aurrera pausoen arabera izango da.

Azkenik, Legebiltzarreko alderdi ezberdinekin ere bilerak izaten dira gazteriaren gaineko kezka nagusiei buruz hitz egiteko, EGKren egitekoaren berri emateko edo bestelako kontuetarako.

Helburuak

HELBURU OROKORRA:
Legebiltzarkideei EGKren jardueraren berri ematea

HELBURU ZEHATZAK:

- Ohiko agerraldian memoria eta plangintza aurkeztea.
- Legebiltzarkideen agerraldi-eskaera eta galderei erantzuna ematea.
- Erakundeei eta gizarteari gazteen egoeraren berri ematea.

Garapena

EKINTZAK:

Ohiko agerraldia

Agerraldi eskaerei erantzuna eman

KRONOGRAMA:

URT	OTS	MAR	APIR	MAI	EKA	UZT	ABU	IRA	URR	AZA	ABE

Ebaluazioa

- Agerraldien maiztasuna.
- Agerraldien kalitatea eta eragina.

8.5.4 Batzar Nagusiak

Bere izaera juridikoa, finantzaketa-bidea eta helburuak direla eta, Euskadiko Gazteriaren Kontseiluak kontaktu zuzena mantentzen du bere egunerokotasunean instituzio publikoekin. Lurralde Historiko bakoitzeko gazteria politiken inguruko hausnarketa eta gazteen egoeraren inguruko datu eta informazioa Batzar Nagusietan plazaratzeko ahalegina egiten da agerraldien bitartez.

Horrez gain, hitzarmena sinatu aurretik, aurrekontu garaian, EGK-k bere jardunaren berri ematen saiatzen da alderdi ezberdinekin bilduz.

Helburuak

HELBURU OROKORRA:

Elkarlana sustatzea.

HELBURU ZEHATZAK:

- EGKren presentzia instituzioetan egonkortzea.
- EGKren egitekoaren berri ematea.
- Lurraldeko gazteriaren egoeraren berri ematea.
- Hitzarmenak negoziatzea.

Garapena

EKINTZAK:

EGKren ordezkaritza publikoa eta iritziaren plazaratzea.

KRONOGRAMA:

URT	OTS	MAR	APIR	MAI	EKA	UZT	ABU	IRA	URR	AZA	ABE

Ebaluazioa

- Agerpenen maiztasuna eta eragina.
- Hitzarmenak lotzea.
- Komunikabideen erantzuna.

8.5.5 Udalak

Bere izaera juridikoa eta helburuak direla eta, Euskadiko Gazteriaren Kontseiluak instituzioekin hartu emana izaten du, baita zenbait Udaletako Gazteria sailarekin ere.

Oro har, EGKren ekarpena gazteria politikei egiten zaie Gazte Planak edo bestelako proiektuen bitartez. Horietarako, eratuta dauden estrukturetan parte hartzen da, foroak, eztabaida mahaiak eta abarren bitartez.

Tarteka, kolaborazio hitzarmenak ere sinatzen dira. Harremana edozein dela ere, harremana mantentzea, bilerak egitea, hitzarmena adostea, sinatzea eta koordinatzea... presidentziaren bitartez burutzen da.

Helburuak

HELBURU OROKORRA:

Politika publikoetan eragitea.

HELBURU ZEHATZAK:

- EGKren lana eta ondorioak zabaltzea.
- Gazteriaren egoeraren berri ematea.

- Gazteria politikei ekarpenak egitea.

Garapena

EKINTZAK:

EGKren ordezkaritza publikoa eta iritziaren plazaratzea.

KRONOGRAMA:

URT	OTS	MAR	APIR	MAI	EKA	UZT	ABU	IRA	URR	AZA	ABE

Ebaluazioa

- Bileren maiztasuna eta eragina.
- Hausnarketen sakontasuna.
- Kolaborazio hitzarmenak sinatzea-berritzea.

8.5.6 Beste Erakundeak

Urtean zehar Gazteria politiketan eta gazteekiko lanean diharduten beste zenbait eragile eta erakunderekin ere kontaktu zuzena eta jarraitua edukitzen da presidentziatik, hala nola: Nafarroako Gazte Kontseilua, Espainiako Gazte Kontseilua, Gazteen Euskal Behatokia, Euskadiko Eskola Kontseilua, Boluntariotzaren Euskal Kontseilua...

Horiez gain, EGK-k hainbat elkarterekin (EGK barruko eta kanpokoak) elkarlana sustatzen du: Udako Euskal Unibertsitatea, Bai Euskarari... Bi hauekin esaterako, hitzarmenen jarraipena egiten da.

Helburuak

HELBURU OROKORRAK:

EGKren ordezkaritza egitea.

HELBURU ZEHATZAK:

- Erakunde eta eragile ezberdinekin elkarlana eta sinergiak bilatzea.
- EGKren hitza eta iritzia zabaldu.

Garapena

EKINTZAK:

EGKren ordezkaritza publikoa eta iritziaren plazaratzea.

KRONOGRAMA :

URT	OTS	MAR	APIR	MAI	EKA	UZT	ABU	IRA	URR	AZA	ABE

Ebaluazioa

- Bileren maiztasuna eta eragina
- Eragile berriekin harremanak
- Eragileen arteko koordinazio eta proiektuen eraketa

8.5.6 Komunikabideak eta irudi publikoa

EGK-k izaera publikoa eta ordezkari-izaera ditu eta lantzen dituen gaiak gaurkotasunekoak eta zenbait sektoreren interesekoak dira. Hau dela eta, Kontseiluak hainbat agerraldi publiko egiten ditu, batzuk EGK-k berak deituta, beste batzuk medioek edo bestelako eragileek deituta.

Hala, 2020an zehar ere komunikabideetan, elkarrizketa eta prentsaurrekoetan, aurkezpenetan eta hitzaldietan parte hartuko da, EGKren hitza eta iritzia gizarteari helarazteko.

Helburuak

HELBURU OROKORRAK:

EGK publikoki ordezkatzea eta EGKren hitza eta iritzia gizarteratzea.

HELBURU ZEHATZAK:

- Elkarrizketetan eta aurkezpen publikoetan EGK ordezkatzea.
- EGKren argitalpenetarako zein komunikabide idatzietarako iritzi-artikuluak, elkarrizketak e.a. egitea.

Garapena

EKINTZAK:

EGKren ordezkaritza publikoa eta iritziaren plazaratzea.

KRONOGRAMA :

URT	OTS	MAR	APIR	MAI	EKA	UZT	ABU	IRA	URR	AZA	ABE

Ebaluazioa

- Agerpenen maiztasuna eta agerpenen eragina.
- Komunikabideen erantzuna.

8.6 Gazteria Legea

EGK-k urteetan parte hartu du Gazteria Legearen sorreraren prozesuan. Hainbat saiakera eman dira, azkena 2019an zehar abiatua. Hori dela eta, EGK berriz ere prozesuaren parte izan da. Orain legeari jarraipena eman beharko zaio eta EGKren proposamenak kontuan izateko bilerak egiten jarraitu beharko da. Hortaz gain, presidentziaren eskutik hainbat esparruetara gazteen ikuspegia eraman beharko da.

Helburuak

HELBURU OROKORRAK:

EGK-ko elkarte eta gazteen iritzia jasotzea eta legean islatzea.

HELBURU ZEHATZAK:

- EGKren ordezkaritza egitea.
- EGKren ikuspuntua zabaltzea.
- Eragin politikoa egitea.

Garapena

EKINTZAK:

EGKren ordezkaritza publikoa eta iritziaren plazaratzea.

KRONOGRAMA:

URT	OTS	MAR	APIR	MAI	EKA	UZT	ABU	IRA	URR	AZA	ABE

Ebaluazioa

- Legean ezarritako proposamen kopurua.
- Bileren maiztasuna.
- Egindako bileren eraginkortasuna.

8.7 Gazte Agora

2019an Eusko Ikaskuntza eta Nafarroaren Kontseiluarekin batera gazteen arteko proiektu batean murgildu zen EGK. Proiektu horrek lurraldeen arteko sarea jostea du helburu. Behin aurreko urteetako emaitzak aurkeztuta, praktika onak identifikatu nahi dira saretzea sustatzeko. Hiru lurraldeen arteko sinergiak sustatu eta garatuko dira urtean zehar.

Helburuak

HELBURU OROKORRAK:

Lurraldeen arteko gazteen saretzea sustatzea

HELBURU ZEHATZAK:

- Lurraldeen arteko puntu komunak identifikatu.
- Partaidetza espazioak sortu.

Garapena

EKINTZAK:

Gazte Agora proiektuaren jarraipena.

KRONOGRAMA:

URT	OTS	MAR	APIR	MAI	EKA	UZT	ABU	IRA	URR	AZA	ABE

Ebaluazioa

- Ekitaldien emaitzak.
- Hurrengo urteetarako ibilbiderako proposamenak.

8.8 Gobernu irekia (OGP)

Eusko Jaurlaritzak, hiru foru aldundiak eta hiru hiriburuetako udalek proiektu berri baten parte izatea erabaki zuten. OGPrako aurkeztu eta hautatuak izan ziren. Proiektu hau aurrera eramateko foro ezberdinak sortu behar zituzten eta horietako bat Foro Erregularra izan da.

Foro horretan hiru administrazio mailetako ordezkariak daude eta baita gizarte zibilak aukeratutako ordezkariak. Azken hauen papera, gizartearen interesak zein beharrak defendatzea da. Beraz, EGKren izenean presidentzia Foro Erregularrean parte hartzen jarraituko du.

Helburuak

HELBURU OROKORRA:

Eragin politikoa izatea.

HELBURU ZEHATZAK:

- Gazteen iritzia erabaki guneetara hurbiltzea.
- Gazteen ikuspuntua txertatzea.

Garapena

EKINTZAK:

EGKren ordezkaritza publikoa.

KRONOGRAMA:

URT	OTS	MAR	APIR	MAI	EKA	UZT	ABU	IRA	URR	AZA	ABE

Ebaluazioa

- Konpromisoen garapenean gazte ikuspegia ikustea
- OGP-ko planaren ebaluazioko datuak
- Gazteen partaidetza

8.9 EGKren 35. urteurrena

Euskadiko Gazteriaren Kontseilua 1986. urtean hasi zen Euskal Legebiltzarrak legez sortua. Hortik aurrera, hainbat izan dira EGK-k egindako lanak eta gizartean izandako eragina. Gainera, hainbat elkarte osatzen dute Kontseilua eta garrantzitsua ikusten da hauek balioan jartzea.

Hori dela eta, 2021. urtean EGK-k 35 urte betetzen ditu eta egindako lana eta esfortzua balioan jartzeko aukera bezala ikusten da urteurrenaren ospakizun hau. Hala ere, formatua adostu beharko da pandemia egoerara moldatzeko.

Helburuak

HELBURU OROKORRA:

Euskadiko Gazteriaren Kontseiluaren lana balioan jartzea.

HELBURU ZEHATZAK:

- EGK-k dituen elkarteen lana balioan jartzea.
- Gazteen partaidetza espazioak aldarrikatzea.
- EGK-k egindako ibilbidea ezagutzera ematea.

Garapena

EKINTZAK:

Ekitaldiko beharrak kudeatu

KRONOGRAMA:

URT	OTS	MAR	APIR	MAI	EKA	UZT	ABU	IRA	URR	AZA	ABE

Ebaluazioa

- Izandako oihartzuna.
- Elkarteen partaidetza.
- Inguruko eragileen partaidetza.
- Partaidetza politikoa.